

JOLAS DRAMATIKOA HAUR HEZKUNTZAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Amirola Goikuria, Lur

ZUZENDARIA: Sainz de la Maza Alday, Eider

2019/2020 IKASTURTEA

LABURPENA

Gratu Amaierako Lan (GrAL) hau Haur Hezkuntzari bideratutako jolas dramatikoaren ingurukoa da. Izan ere, Haur Hezkuntzako bigarren etapan imitazioa eta jolasaren bidez dramatizazioaren lehenengo urratsak ematen dira. Hasteko, dramatizazioari esker, hurrek gorputz adierazpenaren eta honen gaitasunak ezagutu ahal izango dituzte, gorputzaren kontrol ona lortuz. Halaber, nabarmendu behar da haurengan jolas dramatikoak sormena eta irudimena sustatzen dituela: ikaskuntza prozesuan jolasa garrantzitsua izanez gero, haurrak gozatzea eta ondo pasatzea ahalbidetuko da. Azkenik, GrAL hau aurrera eramateko, Lehen Hezkuntzarako liburuetatik eskuratutako jolasa dramatikoak birmoldatu dira eta diseinatutako esku-hartzea hiru urteko gela bateko hamar hurrekin praktikan ipini da. Bestalde, Haur Hezkuntzan dramatizazioa lantzeko jolas bilduma bat sortu da, irakasleentzako baliabide interesgarria izan daitekeelakoan.

Hitz-gakoak: Haur Hezkuntza, Dramatizazioa, Jolasa, Jolas dramatikoa.

RESUMEN

Este Trabajo Fin de Grado (GrAL) gira en torno al juego dramático en Educación Infantil. De hecho, en la segunda etapa de la Educación Infantil se dan los primeros pasos de la dramatización a través de la imitación y el juego. Para empezar, gracias a la dramatización, los niños y niñas podrán conocer la expresión corporal y sus capacidades, consiguiendo un buen control corporal. Hay que destacar también, que en los niños y niñas el juego dramático fomenta la creatividad y la imaginación: si se le da más importancia al juego en el proceso de aprendizaje, los niños y niñas aprenderán a disfrutar y a divertirse. Finalmente, para llevar a cabo este GrAL, se han readecuado los juegos dramáticos obtenidos de los libros dirigidos a Educación Primaria y se ha puesto en práctica la intervención diseñada con diez niños y niñas de un aula de tres años. Por otro lado, se ha creado una colección de juegos para trabajar la dramatización en Educación Infantil, que puede ser un recurso de interés para el profesorado.

Palabras-clave: Educación Infantil, Dramatización, Juego, Juego dramático.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. JUSTIFIKAZIOA	5
3. HELBURUAK	6
4. MARKO TEORIKOA	8
4.1. Haurren irakaskuntza-ikaskuntza prozesua.....	8
4.2. Gorputz adierazpena	8
4.3. Garapen Motorra.....	10
4.4. Jolasa	12
4.5. Jolas sinbolikoa.....	14
4.6. Jolas dramatikoak.....	16
4.7. Jolasa eta Jolas dramatikoaren desberdintasunak.....	17
4.8. Irakaslearen rola	18
5. METODOLOGIA	20
5.1. Erabilitako Jolasak.....	21
5.1.1. Aurkezpenekoak.....	21
5.1.2. Berotzekoak	21
5.1.3. Taldekoak edo Kooperatiboak	22
5.1.4. Dramatizatzekoak.....	22
5.1.5. Musikalak	28
5.1.6. Erlaxatzekoak.....	28
5.2. Ebaluaketa.....	29
6. EMAITZAK	30
6.1. Haurren autoebaluazioa.....	30
6.2. Haurren ebaluazioa.....	31
6.3. Irakaslearen Autoebaluazioa.....	32
6.4. Saioaren Ebaluazioa	33
7. ONDORIOAK eta HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	34
8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	38
9. ERANSKINAK	42
9.1. Eranskina: Erabilitako jolasak.	42
9.2. Eranskina: Jolasen fitxak.	44
9.3. Ebaluazio taulen ereduak.....	80

1. SARRERA

Irakasle edo/eta ikerlari moduan jolasa, umeak hobeto ezagutzera bideratzen gaituen tresna da; hau da, haurren izaera behatzeko, sentimenduak eta haien arteko komunikazioa sustatzeko modua da. Gure bizitzan, jolastea oso osasuntsua da; txikiak eta helduak garenean komunikatzeko eta erlazionatzeko modu bat bezala hartu behar dugu. Beraz, hezkuntza sistemaren prozesuan, Haur Hezkuntzako etapan jolasari leku pribilegiatu bat ematen zaio, haurrek jolasaren bidez ezagutza asko barneratzen dituztelako. Beste aldetik, jolasek gure ingurua eta bizitzako prozesuak ulertzen laguntzen baitute. Eginkizun honetan, haurren garapenean parte hartzen duten edozein pertsona edo erakunde ardua daukate; adibidez, eskola eta bere inguruko gizartea osatzen dutenak.

Hori dela eta, nire Gradu Amaierako Lanerako proposamena Haur Hezkuntzako etapan ematen diren jolasen inguruko hausnarketa eta esku-hartze bat diseinatzea da. Aditu ezberdinen liburu eta artikuluak irakurri ondoren, planteatzen dituzten jolas dramatikoak Lehen Hezkuntzara bideratuta daude eta Haur Hezkuntzako etapan egin ahal diren jolasak aurkitzeko zailtasunak izan ditut. Hortaz, nire GrALerako esku-hartzea liburu eta esperientzia ezberdinetatik jasotako jolasak biltzea eta moldatzea da; hau da, aurkitu ditudan Lehen Hezkuntzako jolasak hartzea eta Haur Hezkuntzara moldatzea. Baita, haurren garapenean ikuspuntua ipiniz, Hezkuntzako etapa ezberdinetan zer nolako prozesua gertatzen den ere azalduko dut. Gainera, prozesu honetan zehar hezitzaileak edo irakasleak jolasetan izan behar duen jarrera argituko dut; batzuetan inplikazio gehiago izan behar dute beste batzuetan baino. Nire esku-hartzerako, Haur Hezkuntzara bideratutako hainbat jolasen fitxak egin ditut, eta bertan atal ezberdinak aurkitu ahal dira; lantzen diren kompetentziak, helburuak, jolasaren azalpena, erabili behar diren materialak eta haurren adin eta garapen ezberdinak kontuan izanda Haur Hezkuntzarako moldaketak.

Gainera, nire esku-hartzean dramatizatzeke aukeratutako bost jolas, hiru urteko gela batean praktikan ipiniko ditut. Haurren, saioaren eta irakaslearen ebaluazioa egiteko, nik diseinatutako ebaluazio taula batzuekin jorratuko dut. Beraz, ebaluazio taula hauei esker, nire esku hartzearen emaitzak aztertzeke aukera izango dut. Lanari amaiera emateko, Gradu Amaierako Lanaren ondorioak eta hobekuntzak aipatuko eta azalduko ditut.

2. JUSTIFIKAZIOA

Lan honen helburu nagusia, Lehen Hezkuntzara bideratutako jolas dramatikoak Haur Hezkuntzara moldatzea da. Nire GrALerako esku hartzea, praktikan bururatu zitzaidan. Nire laugarren mailako praktikaldian umeentzako jolas dramatikoak martxan ipini nahi nituen, baina zaila egiten zitzaidan Haur Hezkuntzarako jolas horiek aurkitzea. Momentu horretan, liburu eta artikulua ezberdinak bilatu, behatu eta irakurri ondoren, jolas dramatiko gehienak Lehen Hezkuntzarako zirela konturatu nintzen eta Haur Hezkuntzarako jolasen moldaketa bat egitea bururatu zitzaidan.

Beste aldetik, nabarmentzekoa da Haur Hezkuntzan jolas dramatikoa guztiz ez dela jorratzen, baina jolas ezberdinei esker dramatizazioa lantzea lortzen da. Haurrek, bi urtetik aurrera jolas dramatikoa praktikan ipintzen dute, haien inguruan ikusten dituzten ekintzak imitatuz. Lehenengo imitazio horiek, dramatizazioaren munduan murgiltzen hasten diren lehenengo adierazpenak dira. Lehen rol jolas horiekin, haurrak jolas dramatikora hurbiltzen hasten dira, bost sei urte arte, jolas dramatikoan erabat sartzen direla. Gainera, jolas hauek haurren gorputz adierazpena hobetzera laguntzen dira.

Haurrak Haur Hezkuntzan jolasaren bidez ikasten eta garatzen direla behin eta berriro irakurtzen nuenez, Haur Hezkuntzara bideratutako jolasak biltzea erabaki nuen. Etapa honetan, jolasei eta mugimenduei garrantzi handia ematen zaie, haurren hazkuntza prozesuari aurre egiteko. Teorikoki zentzua daukan hori, praktikan desegiten da; hau da, Haur Hezkuntzako Curriculumean aipatzen da jolasa eta esperimendua haurren garapenerako eta ikaste prozesuaren ardatza eta motorra direla, besteak beste. Baina dramatizaziorako informazioa edo jolasak bilatzerakoan, ez dago konkretuki Haur Hezkuntzako etapari zuzendutako hain liburu kopuru handirik. Nola izan daiteke Hezkuntza Sailak Haur Hezkuntzako etapan jolasak garrantzia daukatela azpimarratu, eta dramatizazioa lantzeko ia jolasik ez egotea?

Azkenik, nire esku-hartzearen diseinutik jolas batzuk hartuko ditut eta hiru urteko gela bateko haurrekin praktikan ipiniko ditut. Horrela, haien erreakzioak behatu eta ebaluatu ahal izango ditut. Ebaluaketa hori egiteko fitxa batzuk prestatu ditut, haurren, irakaslearen eta saioaren balorazio bat egiteko asmoarekin. Balorazio hori egin ondoren, haurrek izan dituzten zailtasunak eta hobetu beharrekoak ikusiko dira, eta horren arabera, eta beharrezkoa izatekotan, birmoldaketa bat egingo dut haurrei eta taldeari egokitutako jolasak izateko.

3. HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia, hezkuntza arloan eta honetatik kanpo egiten diren dramatizazio jolasak biltzea eta Haur Hezkuntzara moldatzea da, dramatizazioa lantzen dituzten jolas gehienak Lehen Hezkuntzara bideratuta daude eta. Esan dezakegu, Lehen Hezkuntzaz gain, jolas dramatikoak ere Haur Hezkuntzan landu daitezkeela eta haurrei irudimena garatzeko aukera ematen dietela. Jolas hauekin imajinazioa jorratzen dute eta hau jolas sinbolikoarekin hasten da; hots, jolas sinbolikoa jolas dramatikoaren lehenengo urratsa da. Bestalde, jolasak fitxetan antolatuta daude, haien erabilera errazteko eta landu nahi denaren arabera aukeratu ahal izateko.

Lan hau jorrazteko, oinarrizko hezkuntza arautzen duen eta indarrean dagoen, 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako Haur Hezkuntzako curriculumaz baliatu naiz. Bertan ezartzen diren hainbat kompetentzia, helburu eta eduki lan honetan zehar kontuan izango ditut jolasen diseinuan eta moldaketan. Jakina denez, curriculum honetan bi esperientzia eremu aurki daitezke; lehenengoa, norberaren nortasunaren eta ingurune fisiko eta sozialaren eraikuntzaren eremua da eta bigarrena, nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpenaren eremua da. Esperientzia eremu hauek kontuan hartuta, jolasen fitxak egin ditut.

Aldi berean, jolasari buruz hitz egiten duten aditu ezberdinek (Alfredo Mantovani, Rosa Inés Morales, Jorge Eines, Antonio Contreras, Nieves Gallego...) argitaratuta dituzten liburu, aldizkari eta artikuluetan oinarrituz, nik diseinatutako jolas orijinalak sortuko ditut, zehazki Haur Hezkuntzari egokituta dauden dinamika dramatikoak eskaintzearen helburuarekin. Gai honen inguruan ikusitako hutsuneak behatu ondoren, eta horren gabeziak kontuan hartuz, proposatuko ditudan jolasak Haur Hezkuntzako bigarren etapari bideratuta egongo dira; hain zuzen ere, 3 - 6 urte bitartean dauden haurrentzat. Hori dela eta, lan hau aurrera eramateko bigarren etapako helburuak kontuan hartuko ditut.

Bestalde, jolasari esker Curriculumean aipatzen diren kompetentzia espezifiko guztiak lantzeko aukera izaten ditugu; hau ikusteko kompetentzien taula bat jolasaren teoriaren atalean dago (Ikusi Kompetentzien taula. 13. orria). Adibidez, lehenengo kompetentzia abestien bidez, bigarren kompetentzia gela neurtzeko jolasean, hirugarren kompetentzia jolas kooperatiboan bidez, laugarren kompetentzia saio bakoitzaren ondoren haurrek egiten dituzten marrazkietan eta azken kompetentzia jolasetan parte hartzerakoan.

Azkenik, diseinatutako jolasak sailkatzeko taula batzuk sortu ditut. Taula horietan atal ezberdinak daude; konpetentziak, helburuak, azalpena, materialak eta moldaketa. Sailkapen honi esker, jolas bakoitzaren fitxa begiratuta lantzen dena ikusi ahal da eta momentu horretan gelan landu nahi dena aukeratzeko errazagoa eta azkarragoa da.

Halaber, jolasen bitartez hainbat helburu nagusi lantzen dira:

- Jolasez baliatuz, elkarbizitzarako teknikak trebatzea, haur taldearen arteko harremanak jorrazteko eta gatazkak konpontzeko.
- Jolasaren bitartez eta mugimendu ezberdinetaz baliatuz, haurren motrizitate lodia sustatuko da, espazioa esploratzeko eta ezagutzeko gaitasuna garatzeko.
- Haurrak lau hanketan ibiliz, gorputzaren atal ezberdineko koordinazioa lantzeko.

4. MARKO TEORIKOA

4.1. Haurren irakaskuntza-ikaskuntza prozesua


Haurra ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren ardatz nagusia da; hau da, umeen pentsamenduak, emozioak eta beharrak kontuan hartu behar dira. Hori dela eta, Andrés-ek (2005) aipatzen duen moduan, haurrek sentitzen dutena ikasten dutena bezain garrantzitsua da. Bestalde, haurren ongizatea bermatzeak hezkuntzaren helburua izan behar du; *“Ongizateak hezkuntzaren eta politikaren helburu garrantzitsuetako bat izan beharko luke”* (Bisquerra eta Hernandez, 2017, 58.or.).

Arestian aipatu bezala, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan umeak garrantzi handia dauka, baina bakoitzak bere prozesua jarraituko du. Horregatik, heldua haurrari lekua eskaini behar dio eta bere beharretara egokitu behar da, bere esperimazioak egiten utziz. Malaguzzik (2001) esaten zuen moduan, helduek haurrek adierazteko eta komunikatzeko dituzten forma guztiak baloratu behar dituzte; hauek, haurren formakuntzan eta baita haien inteligentzian ere garrantzi handia daukate, baina batzuetan kulturagandik gutxietsiak eta ahaztutak izaten dira. Catherine L’Ecuyer (2015) adierazitakoa kontuan hartuta, *“garrantzitsuena ez da haurrentzako datu orkestra aberastea, haien eguneroko beharrei erantzungo dieten milaka ekitaldi txiki egitea baizik”* (in Tresserras, 2017, 60.or.).

4.2. Gorputz adierazpena

Haur Hezkuntzan mugimendua eta gorputzaren adierazpena lantzea beharrezkoa da. Etapa honetan, umeak garapen fasean murgilduta daude eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar gorputzari garrantzia eman behar diogu. Gil Madrona-k eta Gutiérrez Díaz del Campo-k (2005, 15. or.) adierazten duten moduan, gorputz adierazpenean oinarritutako hezkuntzak, gorputz hizkuntzaren bitartez mezu ezberdinak ulertzeko eta adierazteko haurra prestatuko du.

Gorputz-adierazpena gure gorputzaren onarpenarekin hasten da. Gorputzarekin egin edo/eta adierazi ahal diren mugimenduak aztertzen dira; egoerak, emozioak, ideiak, bizipenak, pentsamenduak eta abar, gero hauen deskribapena egiteko. Horretarako, gorputza komunikaziorako eta adierazpenerako tresna bihurtuko da, keinuak eta mugimenduak eginez. Hori dela eta, zerbait adierazten dugun bakoitzean, besteei, gure nortasunaren zati bat erakusten diegu, gure burua eraikiz (Vizcarra eta al., 2010, 19-20. or.).



1. irudia. Gorputz-adierazpena lantzeko gaitasunak.

Gorputz-adierazpena definitzea nahiko zaila da eta historian zehar hainbat definizio eman zaizkio. Sierraren (2007) usteetan, gorputz-adierazpena gizakia bezain zaharra da; hau da, historian zehar betidanik dantza tribalak (dantza folklorikoak) ezagutu ohi dira. Hori dela eta, dantzaren, musikaren eta antzerkiaren bidez mugimenduak edo/eta emozioak adierazten dira (in Vizcarra eta al., 2010, 22. or.). Baina, gorputz-adierazpenaren helburu nagusia sormena lantzea da; gorputzaz baliatuz gure sentimenduak adierazteko gaitasuna daukagu, adibidez, gorputzaren jarrera ez da berdina triste edo pozik gaudenean (Sierra, 1996).

Bestalde, gorputzaren eta mugimenduaren bidezko hezkuntzak alderdi adierazkorrak, kognitiboak, komunikatiboak eta afektiboak eskatzen ditu (Herranz eta López Pasto, 2015, 2.or.). Alderdi hauek Haur Hezkuntzako Curriculumean aurkitzen dira; 237/2015 DEKRETUAN zehazten da, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartutakoan hain zuzen ere. Bertan dagoen Haur Hezkuntzako bigarren esperientzia eremuan arreta ipini behar da, hau da, nortasun eraikuntza eta komunikazio adierazpenean. Aldi berean, Haur Hezkuntzako etapan, haurren komunikazio eta adierazpen moduak ugariagoak dira, gorputza eta keinuen bidezkoak gehien bat. Besteak beste, esperientzia eremu honetan, gorputz hizkuntzaren arloa lantzen da.

Gainera, Vizcarrak (2010) aipatzen duenez, gorputz-adierazpenaren bidez, gaitasun motorra hobeto daiteke (Vizcarra eta al., 2010, 19. or.). Hau da, gorputz-adierazpena landuz (dantzak, jolasak, keinuak, mugimenduak...), gure gorputzaren gaitasun eta garapen motorra jorratu ahal da. Hori guztiagatik, Haur Hezkuntzan gorputz-adierazpena eta garapen motorra lantzea beharrezkoa da.

4.3. Garapen Motorra

Haur Hezkuntzan egin ditzakegun jarduerak egokiak diren ala ez jakin ahal izateko, 3 eta 6 urteko haurren garapenaren ezaugarriak ezagutu behar dira. Haurren garapenaren etapak ezagutuz, haurrentzako ekitaldiak hobeto planteatu ahal dira eta hauen erantzunak zeintzuk izango diren aurreikusi ahal dira (Esteve, A.I., 2013).

Hori dela eta, Haur Hezkuntzako adinak kontuan hartuta, Buenok, Manchónek eta Moralek (1900) egindako sailkapena oinarri bezala hartzeko aukera dago.

- 3 eta 4 urte bitartean, pausu handi bat ematen da. Hiru urtetik aurrera, haurren ikuspuntutik, ezin da bereizi ekintza objektuetatik; hau da, ikusten duten guztia, gorputzarekin zerikusia dauka, gorputz osoa parte hartzen du. Haientzako, estimulu guztiek garrantzia daukate; irudimena eta errealitatea nahasten dituzte.
- 4 urterekin, gorputzaren koordinazioaren garapena ematen da. Gainera, froga motorrak egiten hasten dira, baina bere adinari egokitutakoak. Baita, sentsuak dituen gorputzaren mugimenduak ere koordinatzen ditu. Adibidez, 8 edo 10 segunduz bitartean, hanka baten gainean oreka mantentzeko gai dira.
- 5 urtekoa, gorputza hobeto ezagutzen du; ekintza eta mugimendu ezberdinak egiteko gai izanda: korrika egitea, hanka baten gainean salto egitea, erritmoari jarraituz ibiltzea eta salto egitea, objektu bat hankarekin kolpatzea, 10 segunduz oin-puntetan oreka mantentzea, pilota esku batekin hartzen saiatzea, eta abar.

Bestalde, 2 eta 5 urte bitartean, haurra ikaskuntza prozesu orokor batean murgilduta dago (Vayer, 1972). Hau da, Haur Hezkuntzako etapan, umeek aldaketa eta ikaskuntza garrantzitsu asko bizitzen dituzte, adibidez, haien inguruaren ezagutzan (lehenengo erreferentziazko ingurutik aldentzen dira, mugimendua eta gorputzaren bidez esperimendatzeko). Gainera, Le Bouch-ek (1966) adierazten zuen mugimenduaren bidezko hezkuntza horrek garatzen dituen oinarri pedagogikoak pedagogia aktiboan inspiratuta daudela. Pedagogia honek filosofia edo/eta egiteko modu bat da, non haurraren autonomia, esperientzia eta bizipenak kontuan hartzen diren. Autore honek (1981) defendatzen zuen, haurrek etapa honetan orientazioa, gorputz eskema eta lateralitatea baita garatzen dutela.

Gorputz eskema, norberak bere gorputzari buruz duen ezagutza eta kontrola da. Ezagutza eta kontrola hau lortzeko, haurra prozesu batean murgiltzen hasten da, bere gorputzarekin jolastuz eta esperimendatuz. Honi esker, umea erreferentzia eredu bat eraikitzen doa eta irudi mental bat sortzen hasiko da. Lateralitateari dagokionez, gorputzaren bi atal simetrikoei baten erabilpenaren hobespena da. Hau da, gorputza simetrikoa da, baina askotan atal batek bakarrik hartzen du parte. Hori dela eta, funtzionalki asimetria bat ematen da (Mutiloa, 2002).

Azkenik, Piaget-en arabera, haurraren garapena lau faseetan banatzen da; fase sentzu-motorra, operazioen aurreko fasea, ekintza konkretuen fasea eta ekintza formalen fasea (Idoate, 2013).

- Fase sentzu-motorra. Lehenengo fase honek urte eta erditik bi urtetaraino irauten du. Haurra bere ingurunea ezagutzeko, haren zentzumenez eta gaitasun motorez baliatzen da. Fasea, erreflexuen bitartez hasten da, baina gero, gaitasun sentsoialetan eta motorretan oinarritzen da. Fase honen amaieran, haurra gai da bere ekintzen ondorioak ezagutzeko eta lehenengo joko sinbolikoak hasten dira.
 - Lehen mailako erreakzio zirkularra (Hilabete batetik, lau hilabeteraino): haurrak plazerra eragiten dioten ekintzak behin eta berriro errepikatzen ditu.
 - Bigarren mailako erreakzio zirkularra (Lau hilabetetik, hamabi hilabeteraino): haurrak egiten dituen ekintzak, bere inguruan dauden objektuak manipulatzeko erabiltzen ditu. Ekintzaren errepikapena, honen ondorioaren araberakoa izango da.
 - Hirugarren mailako erreakzio zirkularra (hamabi hilabetetik, hamazortzi hilabeteraino): haurra aurreko mailako ekintzetan aldaketak egiten hasten da.
- Operazio aurreko fasea. Bigarren fase honek, bi urtetik zazpi urteraino irauten du. Aurreko fasearen ekintzak barneratzen dira.

- Ekintza konkretuaren fasea. Hirugarren fasea, zazpi urtetik hamaika urtera arte heltzen da. Fase honetan, arazoak konpontzeko ekintzak sortzen dira; hau da, haurrak sinboloak modu logikoan ulertzen ditu. Hori dela eta, ekintza orokortzen hasten da.
- Ekintza formalen fasea. Laugarren eta azken fase hau, hamabi urtetik aurrera garatzen da. Haurra ikuspegi abstraktua lantzen hasten da. Baina ikuspegi hori, bere gaitasunetan ezartzeko zailtasunak izango ditu.

Haur Hezkuntzan kontuan hartzen direnak, lehenengo eta bigarren faseak dira; hau da, haurren adina eta garapena kontuan izanda, Haur Hezkuntzako lehenengo eta bigarren zikloi erreferentzia egiten diotenak (zero urtetik sei urtera). Hirugarren eta laugarren faseak, Lehen Hezkuntzan emango dira, alegia.

4.4. Jolasa

Jolasa gizakion berezko ekintza da; garai, adin eta kultura guztietako jokaeraren ezaugarria da. Gizakiarentzako, jolasa garrantzi handia dauka bere garapenean, batez ere maila sozialean; hau da, jolasak gure maila sozialeko jokaerak ondorioz gabe entseiatzea baimentzen baitigu. Bestalde, Haur Hezkuntzan, jolasa trebetasunak, gaitasunak eta ahalmenak lortzeko oinarritzko tresna da (Delgado, 2011). Huizingak (1900) berriz, jolasa ekintza edo betetze aske bat bezala definitzen du. Jolasa, denborazko eta espazioko muga jakin batzuen barruan garatzen da, nahiz eta hauek askatasunez onartuak izan arren. Ekintza honek helburua bere baitan dauka eta, alde batetik, tentsio- eta poztasun-sentimenduak darama, eta bestetik, bizitza arrunta ez bezalakoa izatearen kontzientzia (in Gallardo López eta Gallardo Vázquez, 2018, 42. or.).

Halaber, Piaget-ek (1900) adierazten zuen jolasak sare zabal bat eraikitze joera duela; haurrari errealitatea asimilatzen ahalbidetzen dio, gogorarazteko, ulertzeko edo konpentsatzeko. Are gehiago, jolasak haurren garapenean zehar hartzen dituen forma ezberdinak, bere egitura intelektualek jasaten dituzten aldaketen ondorioa da (in Gallardo, 2018, 42. or.). Horregatik, jolasak haurren egitura mental berriak garatzen eta ezartzen ditu (Linaza, 1991).

Jolasa, errealitatearekin elkarreragina sortzeko modu bat da, jolasten duenaren faktoreak zehaztuz eta ez kanpoko faktoreen eraginagatik; haurrek ikasteko daukaten modurik egokiena da, baita kreatibitatea garatzeko eta sentimenduen garapena sustatzeko ere; haurren ahalmek eta gaitasunak garatzeko modua da jolasa (Gallardo, 2018, 43. or.).

Amaitzeko, jolasen bitartez Curriculumaren konpetentzia guztiak landu ahal direla aipatu beharra dago. 237/2015 Dekretuan, zazpi konpetentzia espezifiko aipatzen dira. Konpetentzia hauek, Haur Hezkuntzako gela batean egunero lantzen dira ekintza desberdinei esker. Hona hemen adibide batzuk:

KONPETENTZIAK	JOLASAK
Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako Konpetentzia	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ipuinak. ➤ Abestiak eta olerkiak.
Matematikarako Konpetentzia	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Zenbakiak lantzeko jolasak (abestien bidez ere landu ahal dira). ➤ Neurriak lantzeko jolasak.
Zientziarako Konpetentzia	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ingurunea ezagutzeko jolasak. Adibidez, naturak eskaintzen digun materialekin egindako esperimenduzkoak.
Teknologiarako Konpetentzia	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ordenagailuko jolasak; adibidez, Ttanttoren jolasa. ➤ Pantaila digitaleko jolasak; adibidez, Txirriten jolasa.
Gizarterako eta Herritartasunerako Konpetentzia	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Jolasetan ondokoari laguntza eskain. ➤ Gelakideekin harremanak sustatzen dituzten jolasak.
Arterako Konpetentzia	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Kreatibitatea lantzeko jolasak (material desberdina eskainiz: margoak, plastilina, paperak...).Jolasak amaitzerakoan egiten dituzten marrazkiak.
Konpetentzia Motorra	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Mugimendua nahasten duten jolasak. ➤ Dantzak.

* Ahal den eanean, konpetentzien koadro hau, dramatizatzekeo nik egindako jolasen diseinuan kontuan hartuko dut.

Haur Hezkuntzan jolasaren etapa ezberdinak ematen dira. Haurrak operazio aurreko fasean aurkitzen dira, bi urtetik zazpi urte arte. Etapa honetan, haurrek jolas sinbolikoa garatzen dute eta jolas dramatikoan lehenengo pausuak ematen dituzte. Gainera, etapa honetan, haurrek hainbeste gozaten duten "fantasiako munduan" sartzen hasten dira, irudimena eta sormena adin honetako mugarik gabe erabiltzean; hau da, dramatizazioa (Julio, 2018).

4.5. Jolas sinbolikoa

Jolas sinbolikoa norberaren nahiz besteen egoeren inguruan jolastea da (Medinabeitia, 2017). Jolas sinbolikoari esker, enpatia garatzen da eta besteekiko erlazioa eta komunikazioa estuagoa sortzen da (Dunn, 1987).

Bestalde, Vidalen esanetara (2014) jolas sinbolikoa jolas-jarduerak dira, non haurrak jostailuen edo/eta objektuen bidez irudikatzen, entseiatzen, proiektatzen, amesten... du. Jolas sinbolikoan, sinboloak nagusitzen dira; hau da, jolaserako erabiltzen diren objektuek beste esanahi bat hartzen dute; erreala irudizkora pasatzen denean eta literala fantasia bihurtzen denean. Adibidez, tenis erraketa bat tenisera jolasteko baliagarria izan daiteke (jolas literala) edo bestela, ipar poloko esploratzaile batek elur ekaitza baten erdian oinetan jartzen dituen elur-erraketa batzuk irudikatzeko (fantasia, sinbolismoa).

Jolas sinbolikoa, gutxi gorabehera, haurrak bi urte dituen hasten da, beti ere haur bakoitzaren heldutasun mailaren arabera kontuan izanda. Jolas sinbolikoa agertzen da, haurrak gaitasun sinbolikoa lortu duenean; hau da, sinboloak maneiatzeko eta sortzeko ahalmena duenean. Tresna sinboliko nagusia hizkuntza bera da. Jolas sinbolikoan, haurrak oso maiz imitatzen du helduen eguneroko bizitza, ikusten dituen marrazki bizidunak edo filmak erreproduzitzen ditu, egoera edo agertoki berriak sortzen ditu, bere irudimen gero eta zabalagoaren ondorioz. Edo bere barne-gatazkak proiektatu ere egiten ditu, hobeto ulertzeko adierazten dituen tentsioak, desioak, beldurrak... bideratuz. Adibidez, haurrak bere panpinari errieta egiten dionean barazkiak jan nahi ez dituelako, edo alderantziz, rol permisiboagoa hartzen duenean eta postreak jaten uzten dionean (Vidal, 2014).

Haurra, jolas sinbolikoaren jarduerekin, identifikatu egiten da; izan ere, objektuen edo jostailuen bidez, helduen rolak esploratu, gauzatu eta esperimendu ditzake. Horri dela eta, haurrak gizarte-sistemaren barruan leku bat aurkitzen du eta funtzio bat betetzen du (Licona, 2000, 5. or.).

Jolas sinbolikoan, hiru etapa ezberdin identifikatu ahal dira, haurraren garapena igaro ahala paraleloki aurkezten direnak (Licona, 2000, 2. or.). Aipatutakoa hurrengo adibide hauetan ikus daiteke:

- “Balira bezala” jolasak: jolas sinbolikoaren lehen etapa da, eta pertsonaia, animalia, ekintza, gertakari eta objektu errealean imitazioak egiten dira. Imitazioarekin bat, dramatizazioa ere lantzen hasten ari dira.
- Rol-ezko jolasak: konbinazio jolasak dira. Hauek, saio, sekuentzia eta eszena espezifikoen bidez aurkeztuak ematen dira, baina aurrez ezarritako eszenatoki baten mende ez daudenak.
- Errepresentazio jolasak: jolas jarduerak dira. Haurrak irudizko adierazpenak garatzen ditu lerro, irudi, marrazki, forma, kolore eta abarren bidez, objektu, irudi, gertakari, pertsonaia eta abar erabiliz. Jolas hauek egituratuagoak dira, jolasaren alde aurreko plangintzaren ondorio delako.

Salomo-ek (1981) defendatzen du jolas sinbolikoaren jarduera batean erabiltzen diren baliabideak egitura sinpleak izan behar direla; horrela, haurrak objektua aldatzeko aukera izango du. Beraz, ingurunea erabiltzeko modua eta horrekin jarduteko eraginkortasuna gero eta handiagoa izango da. Jolas sinbolikoan erabiltzen diren objektuek ezaugarri hauek izan behar dituzte (in Licona, 2000, 5. or.):

- Egitura gutxikoa. Jostailuek, bai erositakoek bai eskuz egindakoek, haurren adinaren arabera xehetasunak (koloreak, formak) izan behar dituzte. Baita sinpleek, erakargarriek eta moldakorrek ere, haurrak jolas sinbolikoan zehar aldaketak egin ahal ditzan. Honen bitartez, haurraren irudimena eta sormena estimulatzen da.
- Roleskoak, errepresentaziozkoak eta “balira bezala”-ko jolasak. Jolas hauek (egunerokoak eta irudimentsuak) bultzatu behar dira, haurrak eguneroko eta gizarteko pertsonaiak eta jarduerak imitatu ahal izateko; adibidez, dendaria izango balira bezala. Baina haurrei proposatzen zaien baliabide materialek alderdi sinboliko, pertsonaia eta egoera fantastiko guztiak imitatzeko aukera eman behar diete.

4.6. Jolas dramatikoa

Jolas dramatikoa bat-batekotasuna bultzatzen duen antzerki mota bat da, non helduek haur talde bat koordinatzen duten. Hurrek aukeratutako gai eta pertsonaietatik antzerki bat asmatu, sortu eta inprobisatzen dute; ikuslerik gabe (Navarro eta Mantovani, 2012, 18. or.).

Jolas dramatikoa ekintza konplexua da, pentsamendu narratiboa bertsio dramatikoan pizten du; eszenei eta elkarrizketei esker, fikzioaren barruan eta kanpoan, jokalariek adierazi behar dituzten gaien inguruan ezagutzak lantzen dituzte (Ortega 1994b, 79. or.).

Tejerinak (1994) jolas dramatikoa hainbat ekintzetan bateratzen dela aipatzen du; ekintzak honako hauek dira: imitazioa, inprobisazioa, rol jolasak, ipuinen dramatizazioak, taldeak sortutako istorioak, irakasle edo animatzailea proposatutakoak, autoreen testuen egokitzapenak, eta abar. Jolas dramatikoaren bitartez, adierazpen guztiak lantzen dira: hizkuntzazkoa, gorputzazkoa, plastikazkoa eta musika-erritmoa (in Álvarez-Uria et al., 2015, 148. or.).

Navarro eta Mantovanik (2012) aipatzen duten moduan, jolas dramatikoak bost helburu garrantzitsu dauzka:

1. Komunikatzeko adierazi. Dramatizazioa hurren adierazpen totalizatua lortzeko egokia da, baina komunikazio gisa ulertu behar da, eta ez artelan zoragarrien zehaztapen gisa.
2. Antzerki-rol tekniko guztietatik pasatu. Hurrek, autore, aktore, eszenografo, ikusle eta kritikoen antzerki-rol teknikoak ezagutu eta beteko dituzte.
3. Fikzioa errealitatetik bereizten ikasi. Umeek ikasi behar dute nolakoa den beren burua, pertsonaiak, egoera dramatikoak eta leku sinbolikoak zehazteko aukera ematen duena. Mundu errealetik imajinariora goratzen gaituen palanka balitz bezala.
4. Pertsonaian mantendu. Hurrek pertsonaia bat interpretatuko dute. Horretarako, mundu imajinario batean sartuko dira eta bere pertsonaiaren papera mantendu beharko dute denbora tarte batean zehar.

5. Egokitu. Helburu baterako bidean jartzen den oztopo baten agerpena saihesteko egin behar den portaeraren doikuntza.

Jolas dramatikoaren haurren etapa ebolutiboaren arabera doa eta “antzerkira jolasteko” modu desberdinak agertuko dira. Nahiz eta adin bakoitzak antzera jokatu eta dramatizatu, hiru alde nagusi ditu: adin bakoitzeko jarduerak, dramatizazio gaitasunak eta taldean eragiteko modua. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko etapa, 3 eta 5 urte bitartean kokatzen da, eta honi aurre etapa deitzen zaio. Etapa honen hasieran, gehien bat ekintza indibiduala eta espontanea ematen da; ondoren, haurra egozentrismoa galtzen doan heinean jolas partekatuetara igarotzen da. Adin honetan, edozein gertaera, elementu edo motibazio abiapuntua da jolas sinboliko baterako eta ingurunean elkarrengaitzen duten rol sozialen imitazioan sartzeko. Haurren jolasa askea eta aldakorra da; horrela, helduak benetako egoera batetik, ipuin batetik edo mozorro-kutxa batetik, behatu, lagundu eta estimulatu besterik ez du egiten (Navarro eta Mantovani, 2012, 21-22. or.).

Jolas dramatikoaren, praktikan, semantikoki eta sozialki bere ordezkaria den beste kontzeptu baten ondoan bizi da: dramatizazioa. Cerverak (1996) esaten digu prozesu mental bat dela hau, eta baita prozesu honen emaitza ere, bere irudikapena (in Álvarez-Uria et al., 2015, 149. or.).

4.7. Jolasa eta Jolas dramatikoaren desberdintasunak

Jolasa subjektutik sortzen den jardueraren bat da, askatasunez egiten dena, ez da errealitatearen hitzez hitzeko kopia bat, baizik eta lanketa pertsonal bati dagokio, intimoa, bere bizipenei emandako esanahietatik abiatuta. Jarduera horretan, haurrak bere buruarekiko eta bere bizitza-istorioekiko konpromiso-dinamika osoa ezartzen du; horregatik, zentzu-dinamika osoa da (Villalobos, 2009, 276. or.). Bestalde, jolas dramatikoaren antzerki-tresna erabiltzen duen jardueraren bat da, bere burua helburu duen eta kanpoko proiektioz ez duen jolas-praktika batean (in Álvarez-Uria et al., 2015, 149. or.).

Adierazpen dramatikoaren (dramatizazioa) eta jolasaren artean erlazio estua dago; dramatizazioan jolasaren oinarriko hiru zutabeetan elikatzen baita: pertzepziozko jolasetan, eragile-espresiboetan eta imitazio-irudikapenetan (Cañas, 1994). Hori dela eta, jolasaren ezagutza eta ulermena, haurren garapena eta arte dramatikoaren ahalbidetzen du (Álvarez-Uria et al., 2015).

Eines eta Mantovanik (1980) aipatzen duten moduan, "jolas dramatikoak sormenezko dibertsioa izan behar du, eta ez kaotikoa". Jolas dramatikoan parte hartzen duten aktoreak batzuetan kaos egoera batean sartzen dira, hau da, ikusleen artean dagoen mugimenduaren aurrean (oihuak eta barreak, pertsonaiei erreplikak...), aktorea egiten ari den jolasaren inguruan zalantzak izatea ohikoa da. Hori dela eta, irakasleak gelan sortu daitezkeen egoera ezberdinak bideratzeko, lehenik eta behin egoera horiek ezagutu behar ditu, aktoreei jolasa bideratzen laguntzeko. Irakasleak kaos egoera hori identifikatzeko, aktoreen erreakzioari erreparatu behar dio. Oro har, irakasleari lehenengo klaseetan zalantzak eta beldurrak sartzen zaizkio, taldea kaosean sartu den ala ez ikusten jakiteko. Baina aktoreak egoera honetan sartzen diren lehenengo aldietan, ikusleen jokoak gainditzeko direnean eta entzundak sentitzen ez direnean jolasa geldituko dute; hau da, irakasleari umeei adieraziko diote gustura ez daudela, jolasa bertan behera utziz. Hala ere, antzeztan ari diren umeei bertara heltzeko, irakasleak sumatu ezin dituen pauso txikiak ematen doaz. Horren laguntzarekin, irakasleak egunerokotasuneko praktikarekin eraginkortasunez haurrei bideratzen ikasiko du (in Eines eta Mantovani, 1980, 59. or.).

Haurrak, jokalaria gisa, mundu fisikoaz duen ulermena adierazten du, ordena horretako arazoak ezagutu eta konpontzeko hainbat estrategia zabaltzean. Haurrak bere sentimenduak berrikusten ditu horiek ulertzeko, bere emozioetatik bereizten ditu eta hura inbaditu eta kateatzen duten guraso-atxikimenduetatik askatzeko moduak aztertzen ditu jolasaren bidez (Villalobos, 2009, 270. or.).

4.8. Irakaslearen rola

Ruiz de Velascok (2006) aipatzen duen moduan, irakasleak, haurra jolasten utzi behar du, baina laguntza eskainiz. Hau da, umearen ekintza behatu, erregistratu eta dokumentatu behar du, geroago, hauen inguruan hausnartzeko, identifikatzeko, konklusioak ateratzeko eta haien jarrerari sentsua emateko.

Halaber, Mantovani eta Moralesek (2003) adierazten dutena kontuan hartuta, haurrentzako jolastea bat-bateko ekintza da, baina hobetu daiteke irakaslearen elkarrekinarekin. Irakasleak, egoera ezberdinetan bi rol izango ditu; jolasaren sustatzailea eta jokalaria. Honek irakasleari izaera sortzailea izatera eramango dio. Bi rol hauetan egonda, irakasleak behaketa eta ebaluazioa egin ditzake bere esperientzia propioetik, jolasa prozesu bat baita. Horretarako, irakaslea hurrengo sei puntuak ikastea eta egiten jakitea garrantzitsua da:

- Ekintza baten kaosa eta betetze gogotsu-neurrigabeak **bereiztea**.
- Jolas librearen eta zuzenduaren arteko bereizketa **estimatu**.
- Ekintza bat, emandako aginteak nola indartu edo aldatzen dituen **ikustea**.
- Bat-bateko ekintzen aberastasuna **balioztatu**.
- Lankidetzak **akuilatu**.
- Aginte argiak **adieraztea**.

Bestalde, hezitzaileak umeak sustatu behar ditu adierazten eta komunikatzen hasteko. Horretarako, irakasleak gelan nola egon behar den ikasi behar du, haurren aurkikuntza pertsonalak eta sortzeko gaitasuna bultzatuz (Mantovani eta Morales, 2003).

Jolasari dagokionez, irakasleak dauzkan intentzioak argi eta garbi izan behar ditu, umeen interesak pizteko; adibidez, jolasa eta haurren lorpenak nola ebaluatuko duen. Jolasean zehar egiten dituen interbentzioak kontuan izan behar ditu eta egunaren amaieran edo posiblea izatekotan jolasa bukatzerakoan, bere esku-hartzea ebaluatu; horrela jolasean zehar bere rola izandako ahuleziak identifikatzeko aukera izango du hurrengo batean hobetzeko. Zeregin hau, egunaren amaieran zehaztasunez egin behar da; hau da, era deskribatzaile batean. Baita, gelan ematen diren egoera ezberdinei buruz idaztea ere garrantzitsua da, ebaluazio egoki bat eta etorkizuna antolatu ahal izateko. Horretarako, Mantovanik eta Moralesek (2003), sei galdera eragile eskaintzen dituzte:

- Nolakoa da parte hartzea?
- Nola bideratzen da jolasa?
- Nola sustatzen da jolasa?
- Ongi pasatzen da?
- Erlaxatuta dago?
- Errepikatze gogoak gelditzen zaizkio?

Jolasaren garapenean sor daitezkeen zailtasunek zerikusia dute bai haurren erronka pertsonalekin, bai sortzen diren interakzio sozialen ondorioz agertzen direnekin. Hezitzaileak haurren gatazka pertsonalen arloari dagokionez esku hartu behar du; haurrak ekintza isolatuak eta loturarik gabeak egiten dituenean, lesioak izateko arriskua dagoenean edo/eta bere mugimen-gaitasunen mugak aitortzea kostatzen zaionean (Ruiz de Velasco eta Abad, 2019, 111. or.). Vicenç Arnaiz-en (2000) hitzetan, "Norberaren gaitasunak ezagutzeak eta gozamina sentitzeak norberak dituen mugez jabetzea dakar: bai gehiago arriskatu dezakeela jakitean, arriskurik hartu gabe egiteko nahikoa trebetasun duelako, bai bere mugak jakinez gero istripua izango duela jakitean".

5. METODOLOGIA

Lan honetan, Haur Hezkuntzarako dramatizaziora bideratutako jolasak birplanteatuko ditut. Horretarako, egunerokotasunean egiten eta betidanik ezagutzen ditudan jolasak hartu ditut, eta ezagutzen ditudan jolas hauek Haur Hezkuntzako bigarren etaparako moldatuko ditut egindako aldaketak zehaztuz eta hauek azalduz.

Jolasen fitxak atal ezberdinak dituzte. Bertan jolasaren konpetentziak eta helburuak zehazten dira gelan landu nahi denaren arabera aukeratzeko. Baita jolas originalaren azalpena ere badago, erreferentzia bat izateko eta edozein moldaketa ezberdina egin ahal izateko; moldaketa bat planteatzen dut baina gehiago egin ahal dira. Bestalde, jolasean zehar erabili ahal den materiala aipatzen dut. Amaitzeko, Haur Hezkuntzarako proposatzen dudan moldaketa adierazten dut.

Fitxa hauek, azpi ataletan sailkatuta daude. Hau aditu ezberdinek egindakoetan oinarrituta dago; Mantovaniren eta Liconaren sailkapenean, besteak beste. Baina hauek egindako klasifikazioan beste atal batzuk falta direla uste dut, adibidez, jolas musikalarena. Haur Hezkuntzan abestiak asko erabiltzen dira, baita jolasetan ere. Hori dela eta, sailkapenean sartzea beharrezkoa ikusi dut.

Dramatizazioa lantzeko saio bat prestatzen dugunean, hainbat atal kontuan izan behar ditugu. Saio bakoitzak gutxienez lau atal ezberdin izan behar dira: berotzeko jolas bat gorputza aktibatzeko, jolas kooperatibo bat talde lana sustatzeko, dramatizazio jolasak irudimena lantzeko eta erlaxatzeko jolas bat saioan sortutako urduritasuna baretzeko. Nire diseinuan planteatzen ditudan jolas guztiak dramatizatzekeo prestakuntza bat dira.

5.1. Erabilitako Jolasak

5.1.1. Aurkezpenezkoak

Talde batekin lan egiten hasten garenean, garrantzitsua da haien arteko ezagutzak bermatzea. Horretarako, aurkezpenezko jolasak egitea beharrezkoa da taldeko kohesioa lortzeko.

Haur Hezkuntzan egiten diren aurkezpenezko jolasak oso ezberdinak izan ahal dira, baina gehienek puntu konkretu bat daukate, gelakideen izenak ikastea. Bestalde, jolas hauekin hurrek bata besteari ezagutzea eta konfiantza izatea lortzen dugu, talde kohesioa sustatuz.

Aurkezpenezko jolasak lantzeko, zazpi jolas hartu eta moldatu ditut. Zazpi jolas hauen taulak eranskinetan aurkitzen dira (Ikusi 10.2. Eranskina: Jolasen fitxak. Aurkezpenezkoak. 44. orria).

5.1.2. Berotzekoak

Dramatizazio saio bat prestatzeko, hasteko eta bukatzeko jolasak beharrezkoak dira. Horrela plangintza bat egiten goaz, hurrei pixkanaka-pixkanaka saioan sartzen joateko.

Plangintza horri esker, errutina bat markatzen dugu, eta errutina hurrei saioan sartzeko baliagarria da. Horren laguntzarekin haurren kontzentrazio maila handitzea lortzen da. Hasiera hori egiteko, berotzeko jarduerak gomendagarriak dira.

Berotzeko jolasekin gorputza martxan ipintzen dugu, eta bestelako jolasak egiteko eta disfrutatzeko prestatzen dugu. Horretarako, moldatu ditudan zortzi jolasak eranskinetan aurkitzen dira (Ikusi 10.2. Eranskina: Jolasen fitxak. Berotzekoak. 51. orria).

5.1.3. Taldekoak edo Kooperatiboak

Jolas kooperatiboak, talde kohesioa lantzeko baliagarriak dira. Jolas hauetan, hurrek bere taldekideekin lan egin behar dute jolasa aurrera ateratzeko. Jolas batzuetan talde lana egokiena ez bada, jolasa ez da ondo aterako.

Haur Hezkuntzako hurrei taldeko jolasak edo jolas kooperatiboak asko gustatzen zaie. Hauen bidez, hurrek jardueretan parte hartzen dute eta bere gelakideekin partekatzen aukera dute.

Gainera, taldeko jolas gehienak gorputzaren kontrola eta adierazpena jorrazteko erabilgarriak dira. Horrek saioa jolas dramatikora bideratzen du eta haurrak hurrengo jolasetarako prestatzen ditu. Horregatik, Haur Hezkuntzarako, jolas kooperatiboak ezinbestekoak dira, eta moldatu ditudan zortzi jolas eranskinetan aurkitzen dira (Ikusi 10.2. Eranskina: Jolasen fitxak. Taldekoak edo Kooperatiboak. 58. orria).

5.1.4. Dramatizatzeak

Jolasa dramatizatzeak modu bat da. Dramatizazioa gorputz adierazpenaren eta ahotsaren bidez ematen da, eta hurren sormena eta irudimena bultzatzen du. Haur Hezkuntzan jolas dramatikorako prestakuntza prozesua ematen da; hau da, etapa honetan egiten diren jolasen bidez, haurrak dramatizazioaren munduan sartzen joaten dira.

Teoriak adierazten duen moduan, jolas dramatikoa bost urtetik aurrera ematen da, eta horregatik liburu gehienak bost urterako etapari bideratuta daude. Baina hiru eta lau urteko haurrak jolas sinbolikoa garatzen hasten dira, eta jolas sinboliko hau jolas dramatikoa oinarria da. Gainera, Haur Hezkuntzan imitatzeak jolas asko aurrera eramaten dira; adibidez, animalien jarrerak edo soinuak imitatzea. Hori ere dramatizatzeak modua da.

Irakasleak, bere rolari dagokionez, jolasetan garrantzi handia izango du; hau da, irakaslea bai behatzaile baita parte hartzaile izango da. Hiru urteko hurrekin irakaslearen parte hartzea handiagoa izango da, hurrek eredu gisa izan daitezela. Berriz, lau eta bost urtekoekin, behatzaile rola nabariagoa izango da. Hona hemen Haur Hezkuntzako hiru urteko gelan aurrera eraman ditudan bost jolasen fitxak:

ESKULTOREA ETA BERE ESKULTURA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Gorputzaren ezagutza hobetu.
- Gorputz-eskema landu.
- Irudimena garatu.
- Bestearekiko konfiantzan sakondu.

Azalpena:

Haurrak binaka ipiniko dira, bata eskultorea izango da eta bestea bere eskultura. Irakasleak adierazten duenean, eskultore guztiak eskulturak moldeatzen hasiko dira, jarrera ezberdinetan jarriz. Eskultorek gorputza malgutasunez eutsiko dute, eskultoreek bere lana egin ahal izateko; hau da, eskultorek burua, besoak, gorputz-enborra eta hankak modu independentean eutsiko dituzte eta eskultoreek hauek mugituko dituzte. Eskultoreak ikaskidea esertzeko, oheratzeko edo zutik jartzeko askatasuna izango du. Denbora bat igarota eta Irakasleak berriro adierazten duenean, rola trukatu dira.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Materialik ez.

Moldaketa:

Hiru urteko hurrekin, aurretik ondo ikusi beharko dute gorputzarekin egin ahal diren mugimenduak minik ez hartzeko. Adibidez, besoekin egin ahal diren biraketak eta mugimenduak.

Behin jolasaren dinamika ezagutzen dutenean, eskulturak gero eta zailagoak izan ahal dira. Hau dinamizatzailer baten laguntzarekin lortu ahal da. Adibidez, haur batek gelaren erdialdean ipini daiteke eta berak nahi dituen eskulturak eskatu ahal ditu. Honi, zailtasuna gehitzeko denbora tarte batean lortu behar dutela planteatu ahal da.

Bestalde, lau eta bost urtekoekin, hauek egiten eta sortzen dituzten eskulturak ikusten egongo da. Baina hiru urteko hurrekin, irakaslearen rola parte hartzaileagoa izango da; hau da, jolas hau egiten dugun lehenengo aldietan, gorputz atal bakoitzarekin sortu behar duten irudia (besoak gora, eseri eta hanka bat igo...) irakasleak ere egingo du haiekin. Irakaslearen parte hartze honekin, hurrei gorputz atalak nola mugitu eta ipini ahal dituzten erakutsiko die.

TAXIA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Irudimena sustatu.
- Mugimenduak koordinatzen ikasi.
- Kontzentrazioa landu.

Azalpena:

Haurrak bi azpitaldetan banatuko dira: batzuk bidaiariak izango dira eta besteak taxiak. Azken hauek, bi eskuetatik helduko dira taxiak sortzeko. Taxiak espazioan zehar ibiltzen hasiko dira, eta oinez ibiltzen daudenek edozein momentuan taxi bat eskatu ahal izango dute. Taxiak bidaiariengana hurbilduko dira eta bi haurrak makurtuko dira besoak askatu barik. Orduan, haur bidaiaria taxia osatzen duten bi pertsonen arteko besoetan sartuko da, sortzen den zirkuluaren erdian geratuz.

Une horretatik aurrera, libre eta modu espontaneoan espazio osoan zehar bidaiatzen hasiko dira hirian zehar bidaia bat simulatuz. Kontuan hartu beharko dute trafiko-arazoak, taxiaren barruan sortzen diren elkarriketak, bidaiaren prezioari buruzko eztabaidak...

Bidaiari bakoitzak nahi dituen taxi guztiak har ditzake jokoak irauten duen bitartean, eta ibilgailua beste pertsona batekin ere parteka daiteke, taxi nahikorik ez balego. Irakasleak aginduta, rolak trukatuko dira eta jolasa berriz hasiko da.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

Jatorrizkoan,

- Materialik ez..

Moldaketan,

- Zirkuitua egiteko materialak (koltxonetak, zintak, blokeak, aulkiak...).

Moldaketa:

Haur Hezkuntzako bigarren etaparen lehenengo urteetan, hurrek bidaian zehar sortu ahal diren arazoak edo/eta zailtasunak ez dituzte imajinatzen. Hori dela eta, jolasean zehar irakasleak arazoak esaten joan ahal da eta hurrek interpretatu beharko dituzte.

Bestalde, taxia libre mugitu ahal da espazio osoan zehar edo aurretik sortutako zirkuitu bat erabili ahal da helmugara heltzeko. Zirkuitua norabide ezberdinak izan ahal ditu, helmuga desberdinekin. Horrela, bidaiaria nora joan nahi duen aukeratu ahal izango du.

Irakaslea, haurren garapena kontuan izan beharko du zirkuituak sortzeko. Zirkuituaren mugak ezberdinak izan ahal dira: koltxonetekin, aulkiekin, mahaiekin, blokeekin, zinta itsasgarriarekin... Bestalde, irakaslea jolasaren dinamizatzailea izango da, gehien bat haur txikiekin; hau da, aginduak emango die bidaian zehar egin behar dutena adierazteko.

EGUNEROKO EKINTZAK IMITATUZ

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Irudimena sustatu.
- Ekintzak gorputzaren eta keinuen bidez adierazi.
- Gorputz-mugimenduak landu eta aberastu.

Azalpena:

Haurrak gelako espazioan zehar sakabanatzen dira. Irakasleak eskatuko die jaiki direnetik egin dituzten eguneroko ekintza guztiak gogoratzeko eta hauek adierazteko. Irakaslearen agindu baten ondoren, haur guztiak bere egunean zehar egindako ekintzak imitatuko dituzte.

Bukatzen dutenean, irakasleak haurrentzako hain ohikoak ez diren beste ekintza batzuk proposatuko die: fruta zuritu, galtzerdi bat jostea, platerak garbitzea, patatak zuritzea, lurra garbitzea, etab.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Materialik ez.

Moldaketa:

Haur Hezkuntzan haien egunerokotasuneko edo gurasoak egindako ekintzak imitatzea ohikoa da; hori jolas sinbolikoa da. Jolas sinboliko hau, jolas dramatikorako prestakuntza bat da. Hori dela eta, eguneroko ekintzak imitatzeak haien adierazpenerako teknikak garatzera bideratuko die.

Irakasleak hurrei ekintza ezberdinak proposatzerakoan, haurren garapena eta ezagutzen dituzten ekintzak kontuan hartu behar ditu. Hau da, oso zaila da haur batek ekintza bat imitatzea aurretik ikusi ez duelako. Beraz, ekintza errazak eta zehatzak izatea gomendagarria da; adibidez, platerak garbitzea, zuhaitz bat margotzea, arropa lisatzea, sopa bazkaltzeko prestatzea, liburu bat irakurtzea, besarkadak ematea, gimnasia egitea...

Praktiketan bizi izandako esperientzia kontuan izanda, konturatu naiz lau eta bost urtekoekin gelan genero bereizketa ematen dela. Horregatik, ekintza zehatz batzuk proposatzen ditut genero bereizketa hori ez sustatzeko helburuarekin; hots, emakumeak etxeko lan gehienak egiten dituzte eta hau ikasgeletan haurrengan islatuta ikusten dugu. Hori dela eta, gurasoek etxean egiten dituzten ekintzak sustatzea pentsatu dut; mutilek eta neskek ekintza guztiak egiteko aukera izan daitezten.

Bestalde, hainbat alditan joratu bada jolasa, hurrek ezagutuko dute. Beraz, haiei bururatzen zaien ekintzak proposatu ahal dituzte, eta ez beti irakaslea izatea. Horretarako, haur batek irakaslearen rola hartuko du eta bere gelakideek egin behar dituzten ekintzak esaten joango da. Gainera, haurrak libre uzten baditugu nahi dituzten ekintzak egiteko, behaketaren bidez haien bizitzaren ikuspuntua ikusi ahal izango dugu.

OIHALEN MERKATUA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Sormena sustatu.
- Oihalak erabilera anitzeko objektu gisa erabili.
- Saltzailearen eta eroslearen rolak jokatu.

Azalpena:

Haurrak bi taldeetan banatuko dira; klase erdia saltzaileak izango dira, eta beste erdia erosleak. Taldeak eginda daudenean, erosleek mozorrotuko dira eta dirua egingo dute jolasa hasi ahal izateko. Bitartean, saltzaileek merkatuko postuak eta haien salgaiak iragarkirentzako kartelak prestatuko dituzte.

Jolasa hasteko dena prest dagoenean, irakasleak aginduta, norberak bere pertsonaian sartuko dira eta jolasa hasiko da. Jolasteko denbora baten ondoren, eta irakasleak aginduta, amaitu egingo da.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Oihalak.
- Mozorrotzeko eta merkatua prestatzeko beste objektuak.
- Kartulinak.
- Margoak eta errotulkiak.
- Artaziak.

Moldaketa:

Haur Hezkuntzako bigarren etapan, aldaketa nabariak ematen dira; adibidez, hiru urteko haurrek oraindik ez dira artaziekin ondo maneiatzen. Guzti hori kontuan hartu behar da jolasa egiterako orduan. Horretarako, jolas hau hainbat zatietan banatzea gomendagarria da. Hau da, jolasa azalduta eta taldeak eginda izanda, lehenengo egunean kartelak eta dirua egitean. Hori eginda daukatenean, merkatu bat nolakoa den azaldu eta haien merkatua eraikiko dute, behar duten bezain materiala erabiliz. Azkenik, dena prest daukatenean, merkatua zabalduko da eta haur bakoitza bere paperean sartuko da rol ezberdinetan jolastuz.

Hiru urteko haurrei merkatuarentzako beharrezko den materiala prestatzea nahiko zaila egiten zaie. Hori dela eta, irakaslearen laguntza beharko dute; adibidez, kartelak eta dirua prestatzerakoan. Haietzako jolasa errazteko, materiala prestatuta egotea aukera bat da eta haiek nahi dutena hautatzea. Irakaslearen hiru urteko haurrei merkatua prestatzen lagunduko die (dirua, kartelak, mozorroak...), 4-5 urtekoek, berriz, materiala prestatuko dute.

MIRARIEN ZIRKUA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Sormena garatu.
- Mozorro ezberdinak landu.

Azalpena:

Jolas honen helburu nagusia, "inoiz ikusi gabeko" zirku bat muntatzea da. Haurrak zirkuko pertsonaia ezberdinak interpretatuko dituzte eta emanaldiak prestatuko dituzte, baina ohiko edo errealitatean ikusitako saioetatik aldentutak eta aldaketak sartuta. Pertsonaiak tradizionalak ere izan daitezke, baina ez ohiko egoeretan.

Bestalde, haurrak prestatuko dituzten emanaldiak zentzugabeak izan behar dira, baina ezin bada behintzat betiko emanaldiei originaltasuna ematen saiatu behar da. Horretarako, hasieran eta amaieran, zirkuko musika erabili ahal da, baita emanaldi bakoitzerako beharrezkoak diren beste soinu espezifikoak eta horiek iragartzeko mikrofonoa ere. Gaiak girotzea eta makillajea lantzeko aukera ere ematen du.

Emanaldiak oso ezberdinak izan ahal dira; adibidez, pailazo intelektualak (jaka eta gorbataz jantzirik), elefante orekariak, armiarma hezitzailea, Donuts malabaristak, 12 hankako animaliak....

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Objektuak
- Oihalak
- Mozorroak
- Kapela
- Makillajea
- Musika
- Ordenagailua edo musika-katea

Moldaketa:

Haur Hezkuntzako haurrentzako, jolas hau hurrei interpretazioaren munduan sartuko die. Hurrek zirkuan ikusitakoa imitatuko dute, baina aldaketak sartzerakoan hurrek sormena eta irudimena garatuko dute; adibidez, haien emanaldiak nolakoak izango diren pentsatzen eta hauek prestatzen.

Hiru urtekoei emanaldi zentzugabeak egitea zaila egingo zaie. Horregatik, irakaslea haien lehenengo irudia izan daiteke pistak eta laguntza emanez; hau da, hamabi hankako animalia bat egiteko, gelakideen laguntza eskatuz edo aulkiak hartuz eta hauen hankak erabiliz.

5.1.5. Musikalak

Haur Hezkuntzako etapan, gehien erabiltzen diren jolasak, jolas musikalak dira. Jolas hauek dantza edo mugimendu batzuekin batera doaz; hau da, dantza edo koreografia bat antola daiteke gorputz adierazpena lantzeko. Jolas hauek dramatizazioarekin oso lotura estua daukate, batez ere ahotsa eta soinuen bidez adierazpen dramatikoa lantzen delako.

Gainera, abestien bitartez gai ezberdinak joratu ahal ditugu; adibidez, proiektu dramatiko batean murgiltzen bagara eta zirkua lantzen badugu, Haur Hezkuntzara bideratutako zirkuko kantak eta dantzak bilatuko ditugu. Horretarako eta abesti ezberdinak aukeratuz, birmoldatutako bost jolas musikal aukeratu ditut (Ikusi 10.2. Eranskina: Jolasen fitxa. Musikalak. 67. orria).

5.1.6. Erlaxatzekoak

Dramatizazio saio praktikoei amaiera emateko, erlaxatzeko jolasak hurrei saioan zehar sortu zaien adrenalina edo mugitzeko gogoak jaisteko balio dute. Saioak hasterakoan erabiltzen ditugun jolasek edo jarduerak garrantzi handia daukate hurrei aurkezpen bat egiteko, baina saioak amaitzerakoan egiten ditugun jolasek ere sentsu handia daukate haurrak baretzeko. Hori dela eta, erlaxatzeko jolasek saioa ixteko aukera ematen digute.

Jolas hauen bitartez, hurrei arnasketaren eta lasaitzearen garrantzia transmititzen diegu. Erlaxatzeko jolasak oso ezberdinak izan ahal dira; musikarekin, arnasketari bideratuta, gorputzaren jarrera eta kontrola lantzekoak eta abar.

Beste alde batetik, saio edo ekintza guztiak erlaxazio jolas batekin bukatzea gomendagarria da, hurrei amaiera identifikatzeko teknika bat eskaintzen diegulako. Horrela, hurrek jasotzeko momentua heldu edo saioa amaitu dela adierazten diegu.

Dramatizatzekeo jolasei amaiera emateko, erlaxatzeko zortzi jolas oso ezberdinak elkartu eta birmoldatu egin ditut Haur Hezkuntzako haurrentzako egokiak izateko. Jolas hauen fitxak eranskinen ataletan atxikituta daude (Ikusi 10.2. Eranskina: Jolasen fitxak. Erlaxatzekoak. 72. orria).

5.2. Ebaluaketa

Haurren ebaluaketa egiteko lau tauletaz baliatuko gara; haurrentzako autoebaluazio taula, haurren ebaluazioa, irakaslearen autoebaluazioa eta saioaren ebaluazioa.

- Haurrentzako autoebaluazio taula. Taula erraz bat izango da, non haien sentimendu eta sentsazioak adierazteko aukera izango duten. Taula gometsen bidez edo laukiak margotuz beteko dute.
- Haurren ebaluazioa. Irakasleak betetzeko taula da. ITEM ezberdinei ezker haurren ebaluazioa egiteko baliagarria izango da.
- Irakaslearen autoebaluazioa. Taula hau saioan burututako ekintzak aztertzeko eta hobekuntzak bilatzeko baliagarria izan daiteke.
- Saioaren ebaluazioa. Saioan edo jardueran zehar erabili diren materialak, espazioak, helburuak... egokienak izan diren ikusteko da. Horrela hurrengo batean hobekuntza horiek sartzeko aukera izango dugu.

Kontuan izan behar dugu, jolas guztietan ez direla ITEM berdinak lantzen. Hori dela eta, irakasleak taula moldatzen joango da. Tauletan, saio bakoitzean landu nahi diren ITEM-ak ipiniko ditu, egindako jolasak kontuan hartuta.

Bestalde, irakasleak, bere kabuz, hainbat metodo edo teknika erabili ahal ditu haurren ebaluazioa aurrera eramateko:

- Behaketa zuzena edo ez-zuzena. Irakasleak behaketa zuzenaren bidez lehenengo ebaluaketa bat egin dezake, baita behaketa ez-zuzenarekin ere; hau da, argazki edo/eta grabazioen bitartez.
- Haurren marrazkiak. Saio bakoitzaren amaieran haurrak bizi izandakoaren marrazki edo irudi bat egiten badute, ebaluazio moduan erabili daiteke.
- Iritziak. Saio bakoitzaren amaieran haurrei galderak egin ahal zaizkie, haien sentimenduak, frustrazioak, galderak... adierazi ahal izateko.


6. EMAITZAK

Nire ekarpenaren emaitzak nik diseinatutako lau ebaluazio tauletan oinarrituta daude. Horretarako, hiru urteko gelan aurrera eraman ditudan bost jolas dramatiko ebaluatu ditut; hau da, haurrek pentsatzen edo sentitzen dutena kontuan hartuta eta jolasak nola garatu direnaren arabera bete ditut taulak. Esku-hartzea hiru urteko 10 umeekin egin dut.

6.1. Haurren autoebaluazioa

Ebaluazio taula hauek, nahiz eta haurrentzako prestatuta egon, hiru urteko haurrentzat taula hori betetzea nahiko zaila egin zaie; adibidez, hiru urterekin ez dakite irakurtzen eta irakaslearen laguntza behar izan dute bete ahal izateko. Taula honi erreferentzia eginez, orokorrean haurrei egindako jolasak haien gustukoak izan direla ikusi dut. Jolasetan, haur batzuei arauak errespetatzea eta gelakideei laguntzea kostatzen zaie. Bestalde, teknika ezberdinen inguruan haur batzuk hobeto ikusi dute bere burua beste batzuk baino; adibidez, salto eta korrika eta keinuak egiterakoan.

Horretaz gain, taulen emaitzak aztertu ondoren, haurrei gutxien egin edo gustatu zaien ekintzak ikusi ditut. Bi izan dira gutxien egindako teknikak; alde batetik, abestea eta bestetik, begiak ixtea. Gainera, taula hau betetzeko irakaslearen papera ezinbestekoa izan da. Haurren arreta pertsonalatuagoa izan dadin eta haurrek taulak ahalik eta hobekien betetzeko, bosteko bi taldeetan banatu ditut. Honi esker, haurrek laguntza egokia jaso dute; hau da, haurrek lurlean eserita gometsen laguntzarekin irakasleak galdetutako itemak aurpegi bidez kalifikatu dituzte.




1. Grafikoa: Haurren Autoebaluazioa.

6.2. Haurren ebaluazioa

Taula honen bidez, haurren gaitasunak ebaluatzeko aukera izan dut. Lehenengokoak, mugimenduak eta mugimenduaren desplazamendua izan dira; hauekin, haur bakoitzaren garapena ikusi dut. Emaitzak aztertu ondoren, haur guztiak daramaten garapena nahiko parekatuta dela esan dezaket.

Gainera, haur gehienak haien beharrak hizkuntzaren bitartez adierazteko gai dira. Egia da oraindik batzuei kostatzen zaiela, baina oinarrizko nahiak edo beharrak jakinarazteko gai dira. Bestetik, materialarekin duten harremana ebaluatu eta gero, haurrek materiala ondo identifikatzen, erabiltzen eta errespetatzen dutela ikusi dut. Baina materiala jasotzerako orduan, haur batzuk disimulatzen eta ezkututzen saiatzen dira ez jasotzeko.

Amaitzeko, haurrei gehien kostatzen zaiena gatazkak autoerregulatzea da. Haien artean sortzen diren gatazkak bakarrik konpontzea edo adostasun batera heltzea, ez zaie erraza egiten eta heldu baten laguntza askotan behar dute; haien frustrazioa bideratzen ikasten ari dira eta pixkanaka haiek bakarrik gatazkak autoerregulatzen jakingo dute.




2. Grafikoa: Haurren Ebaluazioa.

6.3. Irakaslearen Autoebaluazioa

Irakaslearen papera ezinbestekoa dela irudikatzen da tauletan, baina bere autoebaluazioa ere garrantzitsua da. Hori dela eta, irakaslearen jokaeretan hobekuntzak sartzeko baliagarria izan daiteke.

Taulan ikusi daitekeen moduan, irakasleak bultzatu behar du haurren arteko gogoeta. Dramatizazio saio bakoitzean gogoetak egiteak garrantzi handia dauka, haurren ikuspegi kritikoa sustatzeko.

Bestetik, orokorrean irakaslearen jarrera eta lana nahiko ona dela ikusten da. Baina feedback-aren aldetik, hobekuntzak sartu ahal direla egiaztatu dut. Nahiz eta feedback-a ona izan, haurrak jolasean egiten ari direnaz jabetu daitezten, bitartean irakaslea galdera eragileak egiten joan daiteke. Feedback honi esker, hurrek irakasleak emandako erantzunak haien ezagutzei edo esperientziei gehitzen dituzte ezagutza berriak eraikiz. Horrela haurren garapena pixkanaka-pixkanaka aurrera doa.




3. Grafikoa: Irakaslearen Autoebaluazioa.

6.4. Saioaren Ebaluazioa

Taula honekin egindako saioaren ahulguneak eta indarguneak ikusten dira. Saioan zehar nahiko hobekuntzak egin ahal direla ikusteko aukera izan dut. Denboralizazioa orokorrean ona izan da, baina “Mirarien Zirkuaren” jolasean adibidez, haurren interpretazioei denbora gehiago eskaintzea egokiagoa liteke; hau da, haur txikiekin hainbat saio jolas honekin egotea hoberena liteke, ematen duelako jolasa korrika eta presaka egin dela.

Era berean, jolas bakoitzaren zailtasun mailan, haien garapenera egokitzea beharrezkoa da, haurrak erosoago sentitu ahal izateko eta haien parte hartzea sustatzeko. Honetarako ere haien garapen mailak ondo behatzea gomendagarria da. Haurrekin egindako jolasak haien adinetara moldatu ditut, baina jolas batzuk planteatuta dauden moduan gutxiago funtzionatu dute beste batzuk baino. Hau da, oihalen merkatuaren jolasean hiru urteko haurrentzako materiala egitea (dirua, kartelak...) ez da erraza izan. Hori kontuan izanda, jolas hau egiten den hurrengo batean materiala prestatuta edo erdi prestatuta izatea gomendagarria da; adibidez, letrak edo dirua margotu dezakete.

Ildo beretik, jolas ezberdinetan behar den materialaren aukeraketa garrantzitsua da. Aurrera eraman ditudan bost jolasetan materiala ondo aukeratuta dago, baina haurrentzako ez da egon oso eskuragarri; hau da, nahiz eta materiala jolasetan erabili, haurrek ez dute aukerarik izan material horiekin esperimintatzeko eta haien gustura jolastu eta manipulatu ahal izateko. Hots, taxiaren jolasean materiala (blokeak adibidez) zirkuitu bat egiteko erabili da, aurretik eraikitako zirkuitu bat, besteak beste. Beraz, nahiz eta jolasetan materialak egon, haurrek bere esperimintazioak egiteko materiala libreki erabili edo naturaltasunez manipulatu behar dute. Bestela materialik erabili ez balute bezalakoa da.



4. Grafikoa: Saioaren Ebaluazioa.

7. ONDORIOAK eta HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

GrAL hau egiterakoan bigarren haurtzaroaren hasieran dramatizazioa ere landu daitekeela egiaztatu dut. Egia esanda, lan honekin hasi nintzenean ez neukan oso argi jolas dramatikoak hiru urteko gela batean sartu ahal izango nuenik; jolas sinbolikoaren etapan baitaude. Gainera, liburuak eta artikuluetan informazioa eta jolasak bilatzerakoan, Lehen Hezkuntzara bideratuta zeuden. Baina, adituen informazio ezberdinak irakurri eta aztertu ondoren, Haur Hezkuntzako haurrek dramatizazioa momentu askotan egiten dutela ikusi dut; adibidez, imitazioak egiterakoa (animalien soinuak), rolezko jolasetan (jolas sinbolikoa) eta abar. Hori dela eta, dramatizazioa lantzen duten Haur Hezkuntzarako jolasak egitea beharrezkoa iruditu zait. Horregatik, Lehen Hezkuntzako jolasak hartu eta Haur Hezkuntzako haurrentzat moldatutako jolasak sortu ditut, Lehen Hezkuntzara bideratutako jolasen zailtasunak murriztuz.

Jakina denez, Haur Hezkuntzako haurrek ikasteko duten modurik egokiena jolasen bidez da. Horregatik, dramatizazioaren munduan lehenengo urratsak emateko jolas multzo bat prestatu dut. Aipatu beharra daukat ez dudala saio dramatiko praktiko bat aurrera eramán, baizik eta jolas dramatiko batzuk; bost hain zuzen ere. Hau da, saio praktikoa jarduera ezberdinez osatutako programa bat da eta jolas desberdinak izan behar ditu; adibidez, berotzeko bat, beste jolas kooperatibo bat, dramatizatzeak eta erlaxatzeko bat. Eta azpimarratu behar dut, dramatizatzeak saio praktikoko honek hasiera eta amaiera ematen dioten jarduerak izan behar dituela.

Jolasek orokorrean moldatzeko eta hobekuntzak sartzeko posibilitate asko ematen dituzte. Hurrengo batean jarduera hauek egiterakoan, jolas hauetan egindako behaketak kontuan hartuko ditut hobekuntzak sartzeko eta haurrei hobeto egokitzeko; hau da, haurren gaitasunei egokitzeko jolasak moldatuko nituzke. Hori kontuan izanda, egindako jolasak hurrengo batean egiten baditut eta haurren oraingo erreakzioak ikusita, zailtasun maila jaitsiko nuke; adibidez, eguneroko ekintzetan imitatzeak jolasean irakasleak ekintza berriak proposatu beharrean, guztien artean (borobil batean ipinita), errepikatu diren ekintzak berriro egin, eta horretan erritmoa landu ahal dugu (abiadura gehiago sartuz, erritmo bat jarraituz...).

Haur Hezkuntzan beharrezkoa da gorputz adierazpena lantzea, eta egia da gorputz adierazpena jorratu ahal dela dramatizaziorik gabe, baina oso zaila da dramatizazioa lantzea gorputz adierazpenarik gabe. Horrekin esan nahi dut, Haur Hezkuntzan dramatizazioa bultzatzen badugu, haurren adierazpen gaitasunak osatuko direla eta horrek taldean eragina izango duela; hau da, landutako adierazpenari esker, hurrek haien nahiak eta beharrak gorputzaren bidez adierazi ahal izango dituzte, haien komunikatzeko era hobetuz. Bestalde, dramatizazioaren bidez haurren sormena eta irudimena ere lantzen ditugu, eta hori ere gorputz adierazpenaren helburua da. Horretarako, Miguel Angel Sierraren (1996) hitzak gogoratu nahi ditut, “Gorputz-adierazpenaren helburu nagusia sormena lantzea da; gorputzaz baliatuz gure sentimenduak adierazteko gaitasuna daukagu, adibidez, gorputzaren jarrera ez da berdina triste edo pozik gaudenean”.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, jolas sinbolikoa garatzen daude, hain zuzen ere, jolas mota hau bi urterekin garatzen hasten da. Arestian aipatu bezala, jolas sinbolikoa garatzeko etapa ezberdinak daude; “balira bezala” jolasak, rol jolasak eta errepresentazio jolasak. Nire esku-hartzean frogatu ahal izan dudanez, parte hartu duten hamar haur gehienek jolas sinbolikoaren lehenengo eta bigarren etapan daude; hau da, imitazioetan eta rol jolasetan sartzen hasten dira. Izan ere, adin tarte honetan Bueno, Manchón eta Mora (1900) esaten duten bezala, “Garapen motorra dela eta, orokorrean, ekintza objektutik ez dute bereizten eta irudimena eta errealitatea nahasten dute”.

Jolas dramatikoaren bidezko jarduerekin, Haur Hezkuntzako hurrek sormena eta irudimena lantzeko eta gozatzeko aukera izan dute. Esku-hartzean zehar ikusitakoa eta umeen autoebaluazio taulan adierazitakoaren arabera, jolasak haien gustukoak izan dira eta ondo pasatzen dutela adierazi dute. Aipatzekoa da, hiru urteko haurrak direla kontuan hartuta eta haien dramatizazio gaitasunak oraindik garatu gabe dauzkatela, horri zuzendutako lehenengo pausuak eman dituztela.

Irakaslearen rola ezinbestekoa izan da jarduera hauek jorratzerakoan. Haur Hezkuntzan bere presentzia beharrezkoa da haurrentzako, haurrek irakaslea eskolako erreferentziazko irudi bezala hartzen dute eta. Hortaz, umeen aurrean ekintza azaltzearen eta egitearen garrantzia, gehien bat txikienezako, beharrezkoa izango da. Baina, irakasleok kontuan izan behar dugu jolasean haurren espazioa errespetatu behar dugula, haien pentsamenduak garatu ahal izateko. Ideia hori indartzeko, Angeles Ruiz de Velasco (2006) hitzak gogora ekarriko ditut, "Irakasleak, haurra jolasten utzi behar du, baina laguntza eskainiz. Hau da, umearen ekintza behatu, erregistratu eta dokumentatu behar du, geroago, hauen inguruan hausnartzeko, identifikatzeko, konklusioak ateratzeko eta haien jarrerei sentsua emateko".

Emaitzetan ikusi daitekeen moduan, haur batzuei jolasetan haien lagunei laguntzea eta arauak errespetatzea kostatu zaie. Hau, haur batzuk oraindik egozentrismoa gainditu gabe daukatelako gerta daiteke. Egozentrismoa, errealitate pertsonala eta errealitate objektiboa bereizten ez duenaren jarrera psikologikoa da. Jarrera psikologiko hau, bigarren haurtzarotan ohikoa da (Euskal Hiztegi Modernoa, 2000).

Ildo beretik, aurrek zailtasunak izan dituzte jolasetan begiak ixtean. Orokorrean, haurrei ez zaie gustatzen begiak ixtea, haien erreferentzia puntua galtzen dutelako eta defentsarik gabeko sentsazioa nabariagoa delako. Gainera, begiak ixterakoan oreka galtzea, objektuekin estropezu egitea eta lurrera erortzea errazagoa da. Haur batzuei sentsazio hau ez zaie gustatzen, gorputz mugimenduak ondo koordinatzeko zailtasunak dituztelako eta traketsak sentitzen direlako. Horretaz gain, ingurua ikusten ez badute espazioaren kontrola ere galtzen dute. Horregatik, jolasak egiteko erabiltzen dugun espazioa ahalik eta garbien egon behar da; hau da, ahal diren objektu gutxien utzi haurra ziurtasuna izan dezan.

Bestalde, jolas batek abestiren bat lantzen ez badu haurrek gutxitan abesten dutela ere frogatzeko aukera izan dut. Aurrera eraman ditudan dramatizazio jolasak abestirik gabekoak izan dira. Egunerokotasunean, Haur Hezkuntzan abestien bitartez gai asko lantzen dira, baina haurrek naturalki dituzten abesteko gogoak gutxitan aztertzen ditugu. Hori dela eta, jarduera hauetan abestiak eta erritmoak saihestea aukeratu dut. Beraz, hau ikusterakoan haurrei galdetzea erabaki dut, haien ikuspuntua ezagutzeko nahiarekin. Haurrekin hitz egin ondoren, taxiaren jolasean batzuk abestu dutela esan didate. Horren zergatia galdetzerakoa, haien gurasoak kotxean egiten dutelaren arrazoa atera da; hau da, imitazio edo rol jolasetan aritu dira.

Honekin batera, jolas batean hizkuntza lantzeko abestia erabili nahi badugu, jolas horren barruan abesti bat sartu beharko dugu; hau da, hurrei jolas batean abesteko gogoak piztu behar zaie. Nabarmentzekoa da, hizkuntza lantzeko ez dela soilik abesti bat behar, baita hurrek naturalki sortzen duten elkarrizketekin jorratzen da. Esan bezala, abestiak eta erritmoak saihestuz hurren arteko elkarrizketak sustatzea lortu dut. Hori oihalen merkatuan ikusteko aukera izan dut, adibidez, materiala aukeratzekoan haien artean hitz egiten egon dira oihal baten inguruan. Aipatu behar da, azkenean gatazka bat sortu dela eta irakaslearen laguntzarekin konpontzen amaitu dutela.

Bestalde, material gehiago sartuko nuke hurren eskuetara uzteko eta haiek manipulatu ahal izateko. Materiala askotan jolasaren tresna bat bihurtzen dugu eta hurrei ez diegu baimena ematen haien esperimentazioak egiteko aukerarik. Materiala tresna bezala ikusi beharrean, manipulatu daiteken baliabide bezala hartzen badugu, hurrei plazerra eskainiko diegu eta haien beharrei egokitu. Adibidez, taxiaren jolasaren moldaketan blokeekin zirkuitu bat egitea proposatu dut. Zirkuitu hori hurrek ere prestatu ahal dute, material ezberdinen laguntzarekin; hau da, irakaslea materiala eskaini eta haiek jolasa aurrera eramateko behar izango duten materiala aukeratu. Ondoren, material horrekin nahi duten zirkuitua egin eta nahi duten mugara iristeko ibilbidea egin ahal dute.

Irakaslearen autoebaluazioan aipatu dudanez, gogoeta handiago bat bultzatzea beharrezkoa dela uste dut. Hori dela eta, hurrengo saiakera batean gogoeta sustatzeko tresna gehiago erabiliko nituzke; hau da, marrazkiak, asanbleak, eztabaidak eta abar. Gogoetari eske hurren hitzezko eta komunikatzeko gaitasuna lantzen da, eta haien arteko harremana piztuko dugu.

Unibertsitatean ikasitakoarekin eta praktikan bizi izandako esperientziarekin, Haur Hezkuntzan jolasaren garrantzia argi neukan. Baina Gradu Amaierako Lan hau egiten joan naizen bitartean, Haur Hezkuntzan dramatizazioa askotan konturatu gabe lantzen dugula eta hurrei dramatizazio jolasetara hurbiltzen diegula ohartu naiz. Nire ustez, dramatizazioa gure bizitzaren egunerokotasunean praktikan ipintzen dugu, bai helduek baita hurrek ere. Hau, gure bizitza amets bezala dagoelako dela uste dut, eta batzuetan gure ametsak dramatizatzen ditugu errealitateara jaisteko nahiarekin. Hori William Shakespeare-n “The Tempest” (La Tempestad) antzazlana agertzen den esaldi bat ondo adierazten duela iruditzen zait.

“Estamos hechos del mismo material que los sueños”

8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Álvarez-Uria, A., Tresserras, A., Zelaieta, E. eta Vizcarra, M.T. (2015). Juego, teatro y educación infantil. La obra teatral Kubik y su valor pedagógico-artístico. Enseñanza & Teaching, 33, 1-2015, 143-161.

Andrés Vilorio, C. (2005). La educación emocional en edades tempranas y el interés de su aplicación en la escuela. Programas de educación emocional, nuevo reto en la formación de los profesores. Tendencias Pedagógicas 10, 107-124. or. Universidad Autónoma de Madrid.

Arnaiz, V. (2000). La imagen de uno mismo ¿es evaluable? Aula de Innovación educativa, 93-94, 6-7. or. Hemendik eskuratuta: <http://www.xtec.cat/~cparella/Articles/observicen%E7.PDF>

Bisquerra, R., y Hernández Paniello, S. (2017). Psicología positiva, educación emocional y el programa de aulas felices. Papeles del psicólogo 38(1), 58-65.

Bueno, M. Manchón, J. Moral, P. (1990). Educación Infantil por el movimiento corporal identidad y autonomía personal 2º Ciclo de 3 a 6 años. Madrid: Gymnos.

Cañas, J. (1994). Didáctica de la expresión dramática. Una aproximación a la dinámica teatral en el aula. Barcelona: Octaedro

Contreras, A. eta Gallego, N. (1997). 150 actividades para niños y niñas. Madrid: Ediciones Akal.

Delgado, I. (2011). El juego infantil y su metodología. Madrid: Paraninfo.

Eines, J. eta Mantovani, A. (1980). Teoría del Juego Dramático. Madrid: Ministerio de Educación.

Euskal Hiztegi Modernoa. (2000). Elhuyar Hiztegia. Gipuzkoa: Usurbil.

Eusko Jaurlaritzak. (2015). 237/2015 Dekretua abenduaren 22koa. Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala, 2016ko urtarrilaren 15a, zk. 9, 1-47. or. Hemendik eskuratuta (2020-03-07): <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>

- Esteve, A. I., (2013). Expresión Corporal y Danza en Educación Infantil. (Grado Amaierako Lana). Valladolideko Unibertsitatea. Hemendik eskuratuta: <http://uvadoc.uva.es/bitstream/handle/10324/3463/TFG-B.293.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Gallardo López, J.A. eta Gallardo Vázquez, P. (2018). Teorías sobre el juego y su importancia como recurso educativo para el desarrollo integral infantil. Revista Educativa Hakdemos, 24, 41-52. or. Hemendik eskuratuta: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6542602>
- Gil Madrona, P. eta Gutiérrez del Campo, D. (2005). *Expresión Corporal y Educación Infantil*. Sevilla: Wanceulen Editorial Deportiva.
- Herranz Aragoneses, A. eta López Pastor, V.M. (2015). La Expresión Corporal en Educación Infantil. *La Peonza: Revista de Educación Física para la paz*. 10, 23-44. or. Hemendik eskuratuta (2020-03-07): <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5367747>
- Idoate Errea, O. (2013). Kanpo espazioaren trataera Haur Hezkuntzako Ikastetxe Berritzaileetan. (Grado Amaierako lana). Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Hemenduk eskuratuta: <https://academica.e.unavarra.es/bitstream/handle/2454/8195/TFG-GBL%20ERREA%20IDOATE%20Oihana.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Julio, M. (2018). Etapas del Juego. Hemendik eskuratuta: <https://www.crecerdecolores.com/post/etapas-del-juego>
- Le Boulch, J. (1981). La educación por el movimiento. Buenos Aires: Paidós.
- Licona Vega, A.L. (2000). La importancia de los recursos materiales en el juego simbólico. Pixel-Bit. Revista de Medios y Educación, 14, 13-21. Hemendik eskuratuta: https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/45502/file_1.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Linaza, J. L. (1991). Jugar y aprender. Madrid: Alhambra Longman.
- Navarro Solano, R. eta Mantovani Giribaldi, A. (2012). El juego dramático de 5 a 9 años. Granada: Octaedro Andalucía.

- Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela. Bilbo: Artezblai.
- Medinabeitia, I. (2017). Emozioak in Community. (Gradu Amaierako Lana). Hemendik eskuratuta: <http://hdl.handle.net/10810/20702>
- Mutiloa Irazusta, A. (2002). Oinarrizko Soin Hezkuntza. Oñati: Debarroko Euskara eta Kirol Zerbitzuak. Hemendik eskuratuta: <https://www.gipuzkoa.eus/documents/882543/2354697/soinhezkuntza.pdf/6be9c1af-2a45-e06e-a1ed-14e644a8dc9e>
- Ortega, R. (1994b). El juego sociodramático como contexto para la comprensión social. In Del Río, P., Alvarez, A. eta Wersch, J. (Eds.), Explorations in socio-cultural studies (Vol.4). Education as cultural construction. Madrid: Fundación Infancia y Aprendizaje.
- Piaget, J. (1990). La formación del símbolo en el niño. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- Pons, E. eta Roquet-Jalmar, D. (2005). Garapen Kognitiboa eta Motorra. Lanbide Ekimena. Hemendik eskuratuta (2019-11-03): <https://garapenkognitibo.files.wordpress.com/2008/11/garapen-kognitibo-eta-motorea.pdf>
- Ruiz de Velasco, A. eta Abar, J. (2019). *El juego simbólico*. Barcelona: Graó.
- Sierra Zamorano, M. A. (1996). La Expresión Corporal desde una doble perspectiva: la de un alumno y la de un profesor. In Pastor Pradillo, Actas del III congreso nacional de educación física de facultades de educación y XIV de escuelas unibersitarias de magisterio. Guadalajara: Alcalako Unibertsitatea.
- Treserras Angulo, A. (2017). *Aportaciones a la formación del profesorado a través del análisis de una experiencia de arte y juego dramático en el primer ciclo de Educación Infantil*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Vayer, P. (1972). *El diálogo corporal*. Barcelona: Editorial Científico-Médica.

- Vidal, A. (2014). Simbòlics psicoteràpia: Juego simbólico ¿Qué es?. Hemendik eskuratuta (2019-10-26): <https://www.simbolics.cat/cas/juego-simbolico-que-es/>
- Villalobos, M.E. (2009). El rol del maestro frente a la construcción del juego simbólico en los niños. *Diversitas: Perspectivas en Psicología*, 5(2), 269-282. or. Hemendik eskuratuta (2020-03-08): <http://www.scielo.org.co/pdf/dpp/v5n2/v5n2a06.pdf>
- Vizkarra, M.T., Villalba, I., Rodríguez, E., Otegi, A., Urkijo, I., Martínez de Guereñu, A., Murua, N. eta Laskurain, L. (2010). Gorputz adierazpena lehen hezkuntzan. Euskera eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren sare argitalpena. Hemendik eskuratuta: <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/9170/testu%20osoa%20bizkarra.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

9. ERANSKINAK

9.1. Eranskina: Erabilitako jolasak.

Aurkezpenezko jolasak:

- > Izen kateatuak
- > Izen erritmikoak
- > Mozkor botila
- > Itsua eta itsu-gidaria
- > Oilo itsua
- > Familia katea
- > Txakur itsua

Berotzeko jolasak:

- > Ttanttok dio...
- > Gorputz zoroa
- > Puxikak
- > Baloibolea
- > Gela neurtzen
- > Makil magikoa
- > Igela
- > Estatuak

Taldeko jolasak:

- > Dordoka
- > Aulkien jolasa
- > Besarkada musikala
- > Igela eta xartalak
- > Zalditxoak
- > Bat, bi, hiru... eguzki
- > Aurpegia ala gurutzea
- > Basapiztiak lotan

Dramatizaziorako jolasak:

- Eskultorea eta bere eskultura
- Taxia
- Eguneroko ekintzak imitatuz
- Oihalen merkatua
- Mirarien zirkua

Jolas musikalak:

- Txokolatero molinero
- Igurtzirik bi eskuak
- Begira-begira
- Trikitixa
- Lehoi baten bila noa

Erlazatzeko jolasak:

- Kas-kas eskola
- Yoga
- Goitik behera
- Arnasa hartzen
- Automasajea
- Erlaxazioaren ordua
- Irabiatu hegoak
- Tximeleta

9.2. Eranskina: Jolasen fitxak.

Aurkezpen Jolasak

IZEN KATEATUAK
<p><u>Konpetentziak:</u></p> <ul style="list-style-type: none">➤ Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.➤ Konpetentzia motorra.
<p><u>Helburuak:</u></p> <ul style="list-style-type: none">➤ Taldekideen izenak ezagutu eta ikasi.➤ Talde kohesioa sustatu.➤ Memoria landu.
<p><u>Azalpena:</u></p> <p>Haurrak borobil batean lurrean eseriko dira. Bat hasten da esaten “gaur ezagutu dut... (izen bat aipatu)” eta izen horri mugimendu edo keinu bat gehituko dio (adibidez, uso bat). Ondoren, bere ezkerrekoa altxatuko da eta aurrekoak esandako esaldia eta keinua esango du, eta berea gehituko dio. Horrela, katearen izen guztiak esan arte.</p> <p style="text-align: right;"><u>Iturria:</u> Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.</p>
<p><u>Materialak:</u></p> <p>Jatorrizkoan,</p> <ul style="list-style-type: none">➤ Materialik ez <p>Moldaketan,</p> <ul style="list-style-type: none">➤ Pilota txiki bat
<p><u>Moldaketa:</u></p> <p>Haur Hezkuntzarako, izenekin bakarrik hastea nahikoa izango da eta mugimendu edo keinu hori aurrerago sartu ahal dugu. Jolas hau dinamikoagoa izateko, pilota bat sartu ahal dugu batetik bestera pasatzeko, jolasa jarraitzeko, eta noren txanda den jakiteko erabili dezakegu moldaketa hau.</p> <p>Manchón-en eta Moral-en (1900) hitzetan, 4 urtekin hurrek gorputzaren koordinazioaren garapenarekin hasten dira. Hori dela eta, jolasak proposatzen duen guztia lehenengo momentutik sartzen badugu, haurrentzako zailtasun handiegia izan daiteke; gehien bat Haur Hezkuntzaren bigarren etaparen hasieran. Horregatik, jolasa pixkanaka hastea gomendagarriena da; hau da, lehenengoz haurren izenekin eta aurrerago mugimenduak edo keinuak sartu.</p>

IZEN ERRITMIKOAK

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Izenekin jolastu.
- Erritmoarekin esperimentatu.
- Gorputz atalekin soinuak sorrarazi.

Azalpena:

Haur guztiak borobil batean eserita, baita irakaslea ere, haien erdua izateko. Jolas honetan, gorputzarekin egingo duten erritmoa jarraituz, umeen izenak aipatuko dituzte. Hau da,

1. Txaloka hasiko dira erritmo bat markatuz.
2. Eskuineko eskuaren atzamarrekin klaskatzen duten bitartean, ume bakoitzak bere izena esango du.
3. Ezkerreko eskuaren atzamarrekin klaskatzen duten bitartean, txanda pasatu nahi dioten lagunaren izena esango dute.

Jolas honek talde guztiak markatzen duen erritmora jarraituko du. Taldekide bakoitzak bere izena entzuten duenean, bere izena esan beharko du eta beste taldekide batena; horrela izen guztiak aipatu arte.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Materialik ez.

Moldaketa:

Haur Hezkuntzaren etapan, erritmoa eta gorputzarekin egin ahal dituzten soinuak ikasten ari dira. Hori dela eta, haienzako zailtasun bat dauka jolas honek; gehien bat atzamarrak klaskatu. Haienzako moldatzeko, txaloekin edo gorputzarekin egin ahal den soinu errez bat soilik erabiltzea gomendagarria da. Adibidez, txaloak erabiltzen baditugu erritmoa markatzeko, izenak esateko ere bai. Irakaslearen irudiak garrantzi handia dauka erritmoa zuzentzeko eta ez galtzeko; honek ahotsarekin beste baten txanda dela adierazi dezake (adibidez, txistua eginez) haurrak jolasaren dinamika jarraitu ahal izateko.

MOZKOR BOTILA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Haurren arteko konfiantza lantzea.
- Kontzentrazioa eta atentzioa jorratzea.
- Talde lana sustatu.
- Besteen ganako zaintzaz arduratzea.

Azalpena:

8-10 partaideko taldeak osatzen dira, zirkulu itxi bat osatuz. Talde bakoitzean, jokalaria bat erdian jarriko da begiak itxita, zutik eta besoak gorputzari itsatsita, bloke zuzen bat bezala; hau da, ez ditu belak tolestu behar eta oinak elkarrekin egongo dira, paraleloan eta lurretik aieratu gabe. Horrela, norabide ezberdinetan kulunkatzen hasiko da, eta gainontzeko haurrek, euren gorputzarekin, erdian dagoen haurra lurrera eror ez dadin bultzatuko dute beste norabide batera abiapuntura itzultzeko nahiarekin. Hala nahi duten jokalaria txandakatu egingo dira botilaren lekua betetzeko.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Materialik ez.

Moldaketa:

Lehenik eta behin, jolasaren izena aldatuko nuke; adibidez, Botila Zorabiatuta. Ondoren, hainbat talde txiki egin beharrea talde bakarra sortzea egokiena da. Horrela, erdian dagoen taldekide baten pisua hainbat haurren ardura izango da eta egin beharko duten indarra txikiagoa izango da.

Bestalde, talde guztiaren kolaborazioa beharrezkoa da erdiko gelakidea minik ez hartzeko, beraz kontzentrazioa jolas honen zati handi bat da. Horregatik, jolasa hasi baino lehen kontzentrazioa ere landu daiteke. Adibidez, izenak errepikatzearen jolas batekin; hau da, irakasleak bere izena esango du eta ondoan dagoen haurra irakaslearen izena eta berea esan beharko ditu. Horrela, azken haurrak izen guztiak esan arte.

Aipatutakoagatik, jolas honetan irakaslearen presentzia beharrezkoa izango da. Talde bakar bat izanda, errazago izango da hurrei laguntzea eta inork minik ez hartu.

Haur Hezkuntzako azken urtean (5-6 urtekin), talde txikietan egin ahal da. Jolasa aurreko urteetan egiten ikasi dute eta haien gelakideen ongi izaten jakingo dute. Haur Hezkuntzako etapa horretan, haurrek haien gorputzaren kontrola garatuago daukate.

ITSUA ETA ITSU-GIDARIA

Konpetentziak:

- Matematikarako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Ikusmen zentzuaren erabateko gabezia esperimintatu.
- Konfiantza eman eta jaso.
- Talde lana sustatu.
- Besteen ganako zaintzaz arduratzea.

Azalpena:

Haurrak binaka ipiniko dira taldea banatzen. A itsu-gidaria da, eta B itsua. A-k, B gelatik, pasabideetatik... paseatzera eramango du. Horretarako, B A-ren besotik helduko da eta kontu handiz A-k gidatuko du, honek paseoaz gozatzeko behar duen konfiantza emanez eta esperientzia bizitzeaz soilik arduratuz.

Itsu-gidariak saihestu egin behar du bere kidea beste itsu batzuekin kolpatzea edo talka egitea, eta lagundu behar dio eskuekin aurkitzen dituen oztopo fisiko guztiak esploratzera. Behin ibilbidea amaituta, rolak aldatuko dira, bikotearen bi pertsonak esperientziaz gozatzeko eta hau frogatzeko.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

Jatorrizkoan,

- Materialik ez

Moldaketan,

- Zapia

Moldaketa:

Haur Hezkuntzako umeek esploratzeko joera dute. Hori dela eta, zentzu bat kentzea haietzako ez da batere erraza izango eta begiak irekitzen hasiko dira. Horregatik, begiak estaltzeko zapi bat erabiltzea gomendagarria da.

Bestalde, ariketa hau jolas baten modura hartzen badute bere bikotea oztopoekin kolpatzera bideratuko dute. Horregatik irakaslearen papera oso garrantzitsua da, bakoitzaren ongi izatea eta bere gelakideena bermatu behar dutela azpimarratuz. Hots, irakasleak eredu bezala haur bat hartu dezake eta besteen aurrean jolasaren adibidea egin.

OILO ITSUA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Besteekiko konfiantza akuilatu.
- Kontzentrazioa landu.
- Talde kohesioa sustatu.

Azalpena:

Taldeko kide bati begiak zapi batekin edo antzeko zerbaitekin estaliko zaizkio, "Oilo itsua" izanik; gainerakoek, bere inguruan, zirkulu bat sortuko dute. Jarraian, taldearen eta oiloaren arteko elkarrizketa txiki bat ezarriko da:

- Oilo itsua ¿Zer galdu zaizu?
- Orratz bat eta titare bat.
- Buelta eman eta aurkituko duzu.

Boluntario batek eskuak bizkarrean jarriko dizkio oiloari, eta bi buelta ematen lagunduko dio, orientazio espaziala gal dezan. Besteak oiloaren hurbileko espaziotik zehar mugitzen hasiko dira. Honek gelakide bat harrapatu behar du (oiloari aurre egin gabe) eta aurpegia eskuekin ukituz, nor den asmatu behar du. Asmatzen badu, harrapatuta izan dena oilo bihurtuko da.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Zapia

Moldaketa:

Irakasleak jolasa azaltzen duenean argi utzi behar die hurrei, nahiz eta jolas bat izan, erdian dagoen pertsonari lasai utzi behar diotela. Haurrak oiloaren ondotik pasa daitezke, ahalik eta zaratarik txikiena sartzen saiatuz, inor harrapatu ez dezan. Eta oiloak inori harrapatzen badio, honek ezin dio aurre egin, ezta bere aurrean apropos ipini harrapatuta izateko ere.

Irakaslearen aldetik, bere rola oso garrantzitsua da. Jolas honetan, irakaslea behatzaile moduan egongo da, baina beharrezkoa izatekotan zaintzailearen ardura hartu beharko du; hau da, irakasleak jolasaren zain egon behar du haurrak zaintzeko, bai oiloa baita gainontzeko haurrak ere; adibidez, oiloaren kasuan, begiak estalita dituelako, ez duelako ikusten eta mina hartu ahal dezakeelako. Bestalde, irakaslea jolasean haur bat bera ere ez dadin estutu eta arauak errespetatu daitezen arduratuko da, baina haurrak askatasunez mugi daitezen utziz.

TXAKUR ITSUA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Arreta eta entzumena sustatu.
- Orientazioa landu.
- Gorputzaren kontrola jorratu.

Azalpena:

Txakur zaindariaren aurrean "hezur bat" (besteek lapurtu behar duten edozein objektu) jartzen da. Txakurrak begiak estalita izango ditu, baina belarri fina. Horren laguntzaz, bere "hezurra" hartu nahi duen lapurra harrapatu behar du. Lapurra zarata atera gabe txakurrari gerturatu behar zaio eta honek daukan "hezurra" lapurtu behar dio. Baina txakurrak zarata txikiena entzuten duenean, bere hatz salatzailea luzatuko du. Norabide onean egiten badu, eta lapurra seinalatzen badu, honek bere lekura itzuli behar da.

Txakurra sentitu eta jabetu gabe, lapurrak "hezurra" lapurtzea lortzen badu, lapurra izan den haurra txakur bihurtuko da.

Iturria: Contreras, A. eta Gallego, N. (1997). 150 actividades para niños y niñas.

Materialak:

- Zapia
- "Hezurra" (makila, botila...)

Moldaketa:

Haur Hezkuntzarako hurrekin egiteko, lehenengoz irakasleak irudi bezala ipini beharko du haurrak jolasa ulertu dezaten. Ondoren, haurra ipiniko da, baina irakaslea umeen beharretara egokitu beharko da.

Jolasa egin baino lehen zenbait jarduera egitea gomendagarria izango litzateke. Lehendabizi entzumenaren pertzepzioa landu behar da, soinu ezberdinak bereiztuz. Baita, isiltasuna mantentzearen garrantziaz ere ohartzeko, jarduera txikiren bat egitea beharrezkoa izango da; adibidez, ezkutaketara jolastea.

FAMILIA KATEA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Beste haurrekiko harremana sustatu.
- Gorputzaren mugimendu eta keinu ezberdinak ezagutu.
- Arreta mantendu erreflexuen bidez..

Azalpena:

Jolasaren dinamizatzailea "ama" izango da; hasiera batean irakaslea eta gero haur bat. Honek, dantzaldia zuzentzen du, haurrak bere atzean ilara batean imitatzen dioten bitartean. Mugimendu edo dantza ezberdinak izango dira, atzean dauden haurrak ibilera ustekabe bat imitatzeko: hanka batean salto egiten, herrenka ibiliz, orpoen gainean, oin-puntetan, atzerantz, ahateak bezala eta abar.

"Amaren" atzean dauden haurrek, "amak" egiten dituen mugimenduak, dantzak edo/eta keinuak erritmo bizian errepikatu beharko dituzte.

Baina kontuz! "Amak" buelta ematen badu, haur guztiak geldirik geratu behar dira estatuak bezala, zeuden posizio berean geratuz. Barrea laster iritsiko da. "Ama" aldatzen joango da, denek parte har dezaten.

Iturria: Contreras, A. eta Gallego, N. (1997). 150 actividades para niños y niñas.

Materialak:

- Materialik ez.

Moldaketa:

Lehenik eta behin, jolasaren izena aldatuko nuke; adibidez, imitazio katea. Horrela, jolasaren dinamizatzaileak ez du zertan "ama" izan behar, familiaren ohizko rolak saihesteko. Haurrentzako familiarekin zerikusia daukan jolas bat gelan lantzea pixka bat nahasgarria izan daiteke; batik bat haur txikientzako. Beste aldetik, dinamizatzailea "ama" izan beharrean, "gidaria" deituko nioke.

Jolas hau egiteko, haurren garapena kontuan izan behar dugu. Haien imitatu behar dituzten mugimendu edo keinuak umeen zailtasunari egokitu behar dira; hau da, Haur Hezkuntzako lehenengo etapan, mugimendu errazak erabili beharko ditugu (txaloak, saltoak...). Bigarren etapan, zailtasun handiago dauzkaten mugimenduak sartu ahal ditugu; adibidez, hanka batean saltoak eman, oin-puntetan ibili, atzerantz...

Berotzeko Jolasak

TTANTTOK DIO...

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Parte hartzea sustatu.
- Kontzentrazioa landu.
- Arreta mantendu.

Azalpena:

Jolasa hasi aurretik, irakaslea taldea motibatzen hasiko da Ttanttoren istorioa kontatuz eta jolasaren dinamika azalduz. Haurrak soilik mugimenduan ipiniko dira esaldia "Ttantok dio..." hasten bada, bestela geldirik edo aurreko mugimendurekin jarraituko dute. Adibidez, irakasleak, "Ttantok dio... hanka baten gainean salto egin" esaldia esaten duenean haurrak saltoka hasiko dira.

Ttanttok agindua ematen edo/eta esaten ez badu, haurrek ez dute men egingo. Omisio horrek, jakina, egoera nahasi eta dibertigarriak sorraraziko ditu. Batez ere Ttanttok agindua ematen ez duenean eta haur batzuk esaldiak adierazitako ekintza egiten dutenean.

Iturria: Izarra Herri Eskola (2019)

Materialak:

- Materialik ez.

Moldaketa:

Lehenengo aldietan, irakaslea izango da jolasaren dinamizatzailea, baina haurrek jadanik jolasa ezagutzen dutenean, haietako bat jolasaren gidaria izan daiteke. Momentu horretan nahaste barregarriak eman ahal dira; adibidez, haur dinamizatzailea "Stop" esaten duenean "Ttanttok dio..." esan gabe eta, ondorioz, bere gelakideek ez diotenean kasurik egiten, behin eta berriro "Stop" hitza errepikatuko du, "Ttanttok dio... Stop" esan behar duela konturatu arte.

Irakasleak jolas honekin arazorik susmatuz gero, aldaketak egin ahal ditzake; hau da, haurrentzako zailtasun handiko jolasa bada, errazagoa egin ahal du; adibidez, ekintza errazak sartuz (eseri, belarria ukitu, salto egin...). Bestalde, haur bat dinamizatzailea bada eta, urduritasuna dela eta, azkarregi egiten badu, irakasleak jolasa gelditu dezake urduritasun maila hori jaisteko asmoarekin.

GORPUTZ ZOROA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Gorputz eskema ezagutu eta landu.
- Gorputzaren artikulazioak mugitu.
- Erritmoa jorratu.
- Espazioa esploratu eta ezagutu.

Azalpena:

Haur guztiak zirkulu batean ipinita, irakaslea jolasa gidatzen hasiko da; hau da, hurrei bi agindu emango dizkie jolasari hasiera emateko, begiak itxi eta gorputza zatika mugitzera gonbidatzen du taldea (burua, sorbaldak, ukondoak, besoak, eskumuturrak, eskuak, gerria, aldakak, belauak, hankak eta oinak). Behin bidaia hau artikulazio guztietatik eginda, gorputza bere osotasunean mugituko dute, bere tokian mantenduz. Ondoren, gelatik mugituko dira gorputza erabat zorotuta izanda. Ez dago mugimendu eredurik, baizik eta bakoitzak bere mugitzeko modua sortuko du.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

Jatorrizkoan,

- Materialik ez

Moldaketan,

- Musika
- Ordenagailua edo musika-katea

Moldaketa:

Lehenengo aldietan, irakasleak hurrei gorputzari mugimendua nola eman ahal zaion azaldu beharko die; Haur Hezkuntzako etapan gorputzaren mugimendu ezberdinak ezagutzen ari dira, lehenengo etapan gehien bat.

Batzuetan, hurrei begiak ixtea kostatzen zaie, gehien bat Haur Hezkuntzan. Hori dela eta, jarduera honek planteatzen duena aldatu dezakegu; adibidez, begiak ixtea aukera bat izatea eta ez behar bat. Hau da, nahi duten hurrei begiak irekita edukitzen uztea.

Ondoren, Haur Hezkuntzan musikarekin asko lan egiten da, jolas honetan haurren mugimenduak motibatzeke musika gehitu ahal da; baita erritmo ezberdinetakoak ere, mugimenduei abiadura emateko.

PUXIKAK

Konpetentziak:

- Zientziarako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Puxika bati esker, gorputzaren mugimendua landu.

Azalpena:

Haur guztiak zirkuluan ipiniko dira eta globo bat pasatuko dute buruaren laguntzaz; bakarrik buruarekin ukitu ahal dute. Puxikak zirkulua hainbat aldiz zeharkatu behar du, haurrak puxika lurrera irits ez dadin saiatzen diren bitartean. Puxika erortzen bada, jokoa berriz hasi behar da.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Puxikak
- Ordenagailua edo musika-katea
- Musika

Moldaketa:

Haur Hezkuntzan gorputzaren mugimenduen kontrola guztiz garatu gabe daukate umeez, hori dela eta soilik buruarekin jolas hau egitea zaila izan daiteke txikientzako. Horrexegatik, lehenengo aldietan gorputzaren beste atal batzuk erabiltzen uztea gomendagarria da. Jolasa nahiko landuta daukatenean, gehien erabiltzen dituzten gorputzaren atalak kentzen joan ahal gara zailtasuna sartzen joateko.

Haur Hezkuntzako azken etaparako puxika bat izan beharrean bi puxika edo gehiago sartu ahal dira.

Musikaren aldetik, genero ezberdinetakoak izan ahal dira, puxikak eraman behar abiadura markatzeko; adibidez, vals, rock, pop eta abar.

Bestalde, gelaren espazio osotik ibiltzeko eta espazioa ezagutzeko aukera ematea ere posiblea da. Adibidez, gelan dauden objektu ezberdinekin puxika nola ukitu ahal duten esperimintatzea, hau apurtu gabe. Horretarako, objektu ezberdinetatik pasatzeko zirkuitu bat egin ahal da.

BALOIBOLEA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Erreflexuekin jolastu.
- Talde jolasak sustatu.
- Irudimena landu.

Azalpena:

Gelan, sei jokalaria edo gehiagoko bi talde osatzen dira. Taldeak aurrez aurre jartzen dira, haien artean irudimenezko sare bat egongo balira bezala eta irudimenezko pilota batekin jolasteko prest. Talde bakoitza bi lerro paraleloetan kokatuko da jolas zelaia irudikatuz. Irakasleak epaile lanak egingo ditu. Baloia ateratzen duen lehenengoa, bigarren ilararen eskuineko muturrean dagoen edozein taldeetako jokalaria bat izango da. Haur honek baloia jaurtiko du beste taldeko jokalaria batengana bideratuz eta, aldi berean, bere izena esan beharko du. Derrigorrezkoa da pilota jasotzen duen jokalaria bere taldeko beste bati jaurtitzea eta honek beste zelaira bidaltzen duen hirugarren bati. Jokalari guztiek jaurtiketa egitean, bai haien taldekideei bai beste taldeari bideratuta, pilota nori zuzentzen dion pertsonaren izena esan behar du. Jolasa eten egiten da, talderen batek arauzko hiru paseak betetzen ez dituenean edo jokalariren batek jaurtiketa zuzentzen dion pertsonaren izena esatean huts egiten duenean. Egoera hori kontrako taldearen aldeko puntua da, jolasa berrabiaraziz.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Materialik ez.

Moldaketa:

Jolas hau Haur Hezkuntzako bigarren etapari bideratuta egongo da. Bigarren etaparen lehenengo urteetan (3 urte), jolas guztia irudimenez baliatzea pixka bat zaila izan daiteke; hori haurren garapenaren arabera baloratu beharko dugu.

Beraz, haientzako moldaketa bat egin ahal dugu, adibidez, haur bat baloia izango balitz bezala jolastea; hau da, pilota izango den haurrak talde batetik bestera korrika joan beharko du jokalaria saltoa eta izena esan ondoren.

Moldaketa hau, taldearen eta haurren garapenaren arabera izango da. Batzuekin egin ahalko da eta beste batzuekin ez, haientzat zailtasun handiegia daukalako. Zailtasuna badauka, izena esaten duen haurra, pilotan den haurrari material bat eman ahal dio (oihala, papera...) eta honek beste aldeko haurrari eraman behar dio.

Irakaslea behatzaile moduan egongo da, baina hurrei laguntza eskaintzeko ere. Adibidez, haurrak zailtasunak baditu lehenengo aldietan, irakasleak haurrarekin jolasaren moldaketa egin ahal du, honek ekintza ulertu arte.

GELA NEURTZEN

Konpetentziak:

- Matematikarako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Talde lana sustatu.
- Unitate ez-estandarrekin neurketak landu.
- Matematikarako konpetentzia jorratu.
- Espazioa neurtu eta ezagutu.

Azalpena:

Haurrak bosteko azpitaldeetan banatuko dira. Talde bakoitzak gelako zabalaren, luzeraren eta altueraren hainbat gorputz-neurri lortu behar ditu, gorputzak edo gorputz-atalak erabiliz (oinak, hankak, eskuak, besoak, besaurreak). Taldean, gutxienez 10 neurri desberdin lortu behar dituzte ahalik eta denbora laburrenean. Talde guztiek batera egiten dute lana, eta idazkari bat izendatu behar dute emaitzak idazteko. Neurketa amaitu ondoren, azpitalde bakoitzak gainerakoei jakinarazten die zeinek diren, beraien ustez, lortu dituzten 3 neurri sortzaileenak.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

Jatorrizkoan,

- Arkatza
- Papera

Moldaketan,

- Arbela
- Zinta-metrikoak

Moldaketa:

Jolas hau Haur Hezkuntzako bigarren etapari bideratuta egongo da. Bigarren etaparen lehenengo urtekoek (3 urte), orri batean idazteko zailtasunak izan ahal dituzte. Hori dela eta, lehenengo momentutik talde ezberdinak egingo dira, neurtzeko moduak adosteko. Ondoren, talde bakar moduan (gela osoa) neurketak egiten hasiko dira eta irakaslea bai arbelean bai orri batean apuntatzen joango da.

Bestalde, gela osoaren zabalera, luzeera eta altuera neurtzeko, zaila izan daiteke. Horregatik, gelan dauden objektu ezberdinak neurtzera bideratu dezakegu; adibidez, mahaia, apalak, leihoak eta abar.

Hala ere, bigarren etaparen azken urtekoekin (5 urte), neurketa estandarrak eta sistema metriko hamartarra lantzen hasi ahal gara teknika ezberdinetaz baliatuz; hots, neurketa-zintarekin metroaren unitatea lantzeko.

MAKIL MAGIKOA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Irudimena landu.
- Gorputz hizkuntza jorratu.
- Arreta eta entzumena sustatu.

Azalpena:

Haur guztiak borobil batean ipiniko dira, bat izan ezik. Horrek, borobilaren erdian ipiniko da eta makila bat, erregela bat... hartuko du. Tresna horrekin, haurrari momentuan bururatzen zaion ekintza, ofizio, pertsonaia edo objektu bat imitatzeko erabiliko du. Borobilean dauden haurrak, objektua, ekintza edo aukeratutako pertsonaia asmatu behar dute.

Erdian dagoen haurrak egiten dituen ekintza, pertsonaia edo objektua asmatzen duenak borobilaren erdira joango da eta aktore bihurtu da. Jolasarekiko interesa ez galtzeko, hau berriro daiteke; adibidez, osagarriak aldatuz (paper orria, zuhaitz hostoa, gaztaina bat, soka zati bat...). Zenbat eta tresna ezberdinak erabili, orduan eta zabalagoa da aukeren eremua.

Iturria: Contreras, A. eta Gallego, N. (1997). 150 actividades para niños y niñas.

Materialak:

- Makila, erregela...

Moldaketa:

Haur Hezkuntzarako jolasa denez, haurrek erabili ahal izango dituzten material edo objektuak ezagunak izatea gomendagarria da. Haurrek irudimen handia daukate eta haiei edozein materialarekin interpretazio bat egiteko balioko zaie.

Jolasa egiten dugun lehenengo aldian, erdian irakaslea ipintzea gomendagarria da. Momentu horretan, irakasleak lehenengo antzezpena egingo du. Haurrek antzeztutakoa asmatzen dutenean, irakasleak beste froga bat egin ahal du haurrei galdera bat eginez: zer gehiago izan edo egin dezakagu? Horrela haurrek ideia botako dute eta irakasleak gonbidatu ahal ditu, ekintza edo pertsonaia egitera.

IGELA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Erlaxazioa landu.
- Gorputzaren jarrera on bat sustatu.
- Arnasaren garrantziaz ohartu.

Azalpena:

Igela belauniko dago lurraren gainean, oinen puntak ukitzen dira, izterrak oso bananduta eta bizkarra oso zuzen. Eskuak itxita, ukabilak belaunen gainean jarriko dira. Jarrerari eutsi behar diote une batez, sakon eta aldizka arnasa hartuz, berriro ondo eseri aurretik.

Iturria: Contreras, A. eta Gallego, N. (1997). 150 actividades para niños y niñas.

Materialak:

Jatorrizkoan,

- Materialik ez.

Moldaketan,

- Musika
- Ordenagailua edo musika-katea

Moldaketa:

Haur Hezkuntzako gela batean, gehienetan haurrak lurrean ezartzen dira. Horrelako jolasak edo jarduerak egitea oso garrantzitsua da, haurrei gorputzaren jarrera egoki bat mantentzera erakusteko.

Bestalde, kontzentrazioa mantentzeko lasaitasuna beharrezkoa da eta jarduera honen bitartez, haurrei erlaxatzen laguntzen zaie. Erlaxazioa bultzatzeko, musika lasai ipintzeko aukera dago.

Zailtasun handiagoa ipintzeko, oinak lurrean ipini ahal dute, izterrak banandutak eta bizkarra zuzen. Horrela, oreka ere lantzeko aukera izango dugu.

Taldeko Jolasak edo Jolas Kooperatiboak

DORDOKA

Konpetentziak:

- Zientziarako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Taldearen harremanak eta gatazkak jorratu.
- Espazioa esploratu eta ezagutu.
- Gorputzaren atal ezberdineko koordinazioa landu.

Azalpena:

Espazio ireki batean eta oztoporik gabe, harrapatzaile bat egongo da (irakaslea edo haurra izan daiteke) eta beste parte hartzaile guztiak dordokak izango dira. Espazioaren erdian marra bat egongo da, eta dordokak lau hanketan ibiliz, alde batetik bestera pasatu behar dute. Harrapatzailea dordokengana hurbiltzen denean, dordokek buruzgora edo hankak eta besoak gora begira ipini behar dituzte harrapatuta ez izateko. Harrapatzaileak dordoka harrapatzen bada, dordoka harrapatzaile bihurtuko da. Horrela, dordoka guztiak harrapatzaile bihurtu arte.

Iturria: Izarra Herri Eskola. (2019).

Materialak:

- Espazio irekia
- Zinta edo marra (espazioa banatzeko)

Moldaketa:

Haur Hezkuntzaren bigarren etaparen hasieran, espazioaren kontrola eta mugimenduen koordinaketa oraindik guztiz garatu gabe daukate. Hori dela eta, jolas hau Haur Hezkuntzarako bideratzen bada, espazioa murriztea gomendagarria da; bai erdiko marra bai jolasaren espazioa zehaztu.

Lehenik eta behin, haurrek dordoka bat zer den eta nolako jarrera daukaten jakin behar dute. Horretarako, irakasleak azalpen txiki bat emango die, bai bideoz edo/eta argazkiaz baliatuz.

Bestalde, lehenengo aldietan, irakaslea harrapatzailea izatea gomendagarria da, haurrak modelo bat izateko. Une honetan, irakaslearen jarrera oso garrantzitsua da haurrak bere egiteko moduan arreta ipiniko dutelako.

AULKIEN JOLASA

Konpetentziak:

- Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia.
- Matematikarako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Musikaren erritmoa landu (lasaia, alaiaz, azkarra...).
- Talde harremana sustatu.
- Estrategiak aplikatu.

Azalpena:

Gelako aulkiekin borobil bat egingo dugu, aulkiak kanporantz ipiniz; hau da, bizkarraldea barrura ipinita eta eserlekuak kanpora. Gelan dauden haur kopurua kontuan izanda, aulki bat gutxiago ipiniko dugu borobila osatuz. Haur guztiak zutik ipinita, irakasleak musika jarriko du eta haurrak musikaren erritmora, aulkien inguruan bueltaka hasiko dira. Musika gelditzen denean, haurrak ahalik eta bezain pronto aulkietan eseriko dira. Eserlekurik gabe gelditzen dena, jolasetik kanporatuta egongo da eta beste aulki bat kenduko da.

Iturria: Izarra Herri Eskola (2019)

Materialak:

- Aulkiak
- Ordenagailua edo musika-katea
- Musika

Moldaketa:

Haur Hezkuntzarako denez, umeei egokitutako aulkiak erabiltzea egokiena da. Horretaz gain, haiei aulkien borobila antolatzen utzi ahal diegu. Jolastuko duten lagunak zenbatu eta behar dituzten aulkiak hartu. Ondoren, norbaitek irakasleari aulki bat eman beharko dio jolasa hasteko "irakaslea eserleku bat behar du eta". Honela, haur kopurua baino aulki bat gutxiago egongo da, bat kanpoan gelditu dezan.

Bestalde, irakasleak musikaren erritmoarekin jolastu dezake. Adibidez, musika bat aukeratu dezakegu non erritmo ezberdinak lantzen diren (Vivaldiren Las cuatro estaciones, adibidez) edo abesti ezberdinak erritmo ezberdinekin (lasaia, alai...).

Gainera, jolas hauekin askotan lehiaketa sustatzen da. Hori saihesteko, haurrak jolasetik kaleratu beharrean, bere gelakide bati galdetu beharko dio "kaixo laguna, zure aulkian lekutxo bat utziko?" eta gelakidea bere aulkian hartu beharko du, bikote bat osatuz. Gehienez, laukote bat osatu ahal izango dute. Laukotea aulkirik gabe geratuz gero, aulkien borobilaren erdialdean sartuko dira, jolasean dauden gelakideei animatzera eta txalokatzera.

BESARKADA MUSIKALAK

Konpetentziak:

- Matematikarako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Taldea kohesioa sustatu.
- Sentimenduak azaleratu.
- Erritmo musikala landu.
- Espazioaz jabetu.

Azalpena:

Irakasleak musika ipiniko du eta hurrak gelako espaziotik mugitzen eta dantzatzen hasiko dira, haiek nahi duten moduan, ez dago agindurik, libre da. Irakaslea musika gelditzerakoan, haur bakoitzak lagun bat bilatu behar du besarkada bat emateko. Musika berriro hastean, hurrek nahi bezala jarraituko dute dantzan eta espaziotik mugituz; banaka edo besarkatutako pertsonarekin. Musika berriro gelditzerakoan, berriro besarkada batean lotu beharko dira beste bi klasekideekin; hau da, hironaka. Horrela, sekuentzia behin eta berriro errepikatuko da, haur besarkaden taldea handituz. Jolasa amaituko da, besarkada kolektibo bat egiterakoan.

Iturria: Urtxintxa.eus (2020)

Materialak:

- Ordenagailua edo musika-katea
- Musika

Moldaketa:

Haurren adina kontuan izanda, batzuetan, irakasleari bakarrik besarkatu nahi diote. Hori dela eta, jolasa ezagutu arte, irakasleak irudi bezala parte hartu dezake; hau da, lehenengo besarkada haur batekin izango da, hurrengo besarkada beste haur bati eman behar diote (haurra errepikatu gabe) eta abar. Horrela, haur guztiekin besarkatuko dira eta ez bakarrik bere lagun minarekin.

Bestalde, multzoak egiteko (binaka, hironaka, launaka...), lehenengo hurrek zenbakiak ezagutu beharko dituzte. Horregatik, multzokatzeak Haur Hezkuntzaren bigarren etapan erabiliko dira.

BAT, BI, HIRU... EGUZKI

Konpetentziak:

- Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia.
- Matematikarako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Jolas kooperatiboak sustatu.
- Espazioaz jabetu eta ezagutu.

Azalpena:

Jolasa zozketa batekin hasiko da paretan egongo den haurra "itsua" aukeratzeko. Haur hori, paretaren kontra jarriko da, begiak besoekin estaliz. Beste haur guztiak paretatik aldentuta dagoen marra baten atzetik ipiniko dira; hauen helburua paretaraino iristea izango da. Itsuak "bat, bi, hiru... eguzki" esango du, eta jarraian buelta emango du beste haurrei begiratzeko. Besteak, itsua zenbatzen duen bitartean aurrera mugituko dira, eta esaldia amaitzerakoan geldirik gelditu behar dira. Itsuak ikusten badie, atzeko marrara bueltatu beharko dira. Denak paretaraino iritsi direnean, itsuari atzamarretatik helduko diote. Horrek "eguzki" hitza esaten duenean, beste guztiak korrika alde egingo dute. Bidean itsuak norbait harrapatzen badu, harrapatuta izan dena itsu bihurtuko da.

Iturria: Urtxintxa.eus (2020)

Materialak:

- Materialik ez

Moldaketa:

Haurren adina kontuan izanda, marra eta paretaren arteko hutsunearen luzeera moldatzea beharrezkoa da txikiei hain luzea ez egiteko. Adibidez, bi eta hiru urteko umeentzako irakaslearen parte hartzea eta laguntza beharrezkoa izango da jolasa ondo joan dadin. Irakaslearengan irudi bat izango dute, jolasa nola egin behar den ikusteko.

Bestalde irakasleak, laguntza behar duten haurrak identifikatu beharko ditu haien parte hartzea sustatzeko.

ZALDITXOAK

Konpetentziak:

- Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia.
- Matematikarako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Gorputzaren mugimendu ezberdinak esperimentatu.
- Erritmoa jarraitu.
- Espazioa esploratu.

Azalpena:

Klasea zirkuko pista bihurtzen da eta haurrak zalditxoak izango dira. Haurrak zaldi-gidariaren atzetik joango dira markatzen dituen jarraibideak betetzen; hau da, pausora, trostara eta lauinkara. Dinamikoagoa izateko, zirku musikarekin egin daiteke. Ondoen, jolasari zailtasuna emateko, zirkulu bat egingo dute eta irakasleak edo zaldi-gidariak bi zenbaki (1 eta 2) edo/eta letra (A eta B) banatuko ditu eta agindu batzuk emango die: A barrura esaten duenean, zaldiak zirkuko pistaren barrura sartu eta bere jarraibideak beteko dituzte. Berdin alderantziz esaten duenean.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Musika
- Ordenagailua edo musika-katea

Moldaketa:

Lehenengo aldietan, zaldi gidaria irakaslea izango da jolasaren funtzionamendua azaltzeko eta haurrek irudi bat izateko. Aurrerago, zaldi-gidariaren papera haur batek egin ahal dezake.

Zailtasuna sartzera Haur Hezkuntzako ume txikiekin zenbakiak edo letrak erabili beharrean koloreak erabiltzea gomendagarria izan daiteke, haurrek hobeto ulertu dezaten. Koloreekin identifikazioa egiteko teknika ezberdina erabili daiteke; koloreetako gometsak, zapi bat, artile edo hari bat... esku batean ipini ahal diegu.

IGELAK ETA XARTALAK

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Gorputza mugitu.
- Jolas kooperatiboak sustatu.
- Espazioa esploratu eta ezagutu.

Azalpena:

Gela bi zatitan banatzen da; zati batekoak "igelak" izango dira, eta besteak "xartalak". Igelak gelatik kukubiloka ibiltzen hasiko dira, eta txingoka doazen xartalen atzetik joan behar dute, hauek harrapatu arte. Igel batek xartal bat harrapatzen duenean, hau igel bihurtzen da, beste xartalak harrapatzera pasatuz. Jolasa amaitzen da, xartala guztiak igel bihurtu direnean.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Materialik ez.

Moldaketa:

Adina kontuan hartuta, Haur Hezkuntzako azken etapan zailtasuna sartu ahal diogu. Adibidez, xartalak besarkatzen badira edo gelako paretaren bat ukitzen badaude (izoztuta geldituz), igelak ezin diote harrapatu, baina egoera horretatik ateratzeko beste xartala bat haien azpitik pasatu edo erdian sartu ahal da.

ESTATUAK

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Talde lana sustatu.
- Kontzentrazioa eta arreta joratu.
- Oreka mantendu.
- Gorputz adierazpena landu.
- Besteenganako zaintzaz arduratu.

Azalpena:

Haurrak joko gunean zehar banatuko dira. Ondoren, "museoaren zaindaria" izango dena zozketatuko da. Zaindaria "Stop" oihukatzen duenean jokalaria guztiek bere jarrera imitatu eta geldi-geldi geratu behar dute, horrela ahalik eta denbora gehien mantenduz. Oreka galtzen duen lehena lurrean eseriko da, eta jokoa berrabiaraziko da. Lurrean eseri dena bakarrik altxatu ahal izango da, beste gelakide batek bere lekua hartzen badu.

Iturria: Contreras, A. eta Gallego, N. (1997). 150 actividades para niños y niñas.

Materialak:

- Materialik ez.

Moldaketa:

Jolas honetan, haurrak gelaren espazio osotik mugitu ahal dira. Baina kontuan izan behar dute zaindaria non dagoen momentu osoan zehar, bere jarrera imitatzeko.

Bestalde, zaindaria "Stop" esaten duenean, haur guztiek geldi egon beharko dute. Bost segundotan inork ez badu oreka galdu, zaindaria berriro mugituko da jokoa berrabiaraziz.

Horretaz gain, eserita daudenak bi jokotan zehar lurrean eserita jarraitzen badute, hurbilen dagoen haurra bere lekua hartuko du, paperak elkarren artean aldatuz. Horrela, haur guztiek jolas osoan zehar parte hartuko dute.

Irakaslea behatzailea eta zaindaria izango da. Behatzailea jolasa aurrera ateratzeko eta haurren beharrak ikusteko, eta zaindaria, behar izatekotan jolasaren arauak hurrei gogorarazteko eta zailtasunak dituzten hurrei lagundu ahal izateko.

BASAPIZTIAK LOTAN

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Erlaxazioa bultzatu.
- Gorputzarekin egin ahal diren soinuak esperimentatu (ahoa, eskuak, oinak...).
- Elkarekintza sustatu.

Azalpena:

Haur guztiak lurrian etzanda egongo dira, begiak zabalik. Hauek piztiak izango dira. Bestalde, "pailazo" bat egongo da, beste haur bat. Hau piztien artean paseatzen joango da, eta bere imitazio eta keinu izugarriak eginez. "Pailazoak" piztiak esnatzen saiatu behar ditu, ahal duen bezain beste, haien barreak sortaraziz. "Pailasoak" dena egin dezake, nahi dituen bezain keinuak, soinuak...; baimenduta ez dagoen bakarria piztiak ukitzea da.

Jolasa amaitzen da, pizti guztiak esnatuta daudenean. Esmatzen den azkenengo piztia, pailazo bihurtuko da, eta jolasa berriro hasiko da.

Iturria: Contreras, A. eta Gallego, N. (1997). 150 actividades para niños y niñas.

Materialak:

- Koltxoneta

Moldaketa:

Jolas honekin, gelan eta haurretan sortzen den urduritasuna baretzeko erabili dezakegu. Jolasten dugun lehenengo aldian, irakasleak "pailazoz" egin dezake hurrei jolasaren arauak azaldu eta irudi baten bidez haiek ikusteko aukera izango dute. Irakasleak, nahiz eta "pailazoa" izan, bere keinuak, soinuak... lasaitasunez egin behar ditu haurren urduritasuna baretu ahal izateko.

Lortu nahi dugun lasaitasun hori apurtu ez dadin, esmatzen den pizti bakoitza bere koltxonetaren gainean eserita eta hitz egin gabe gelditu behar da. Esmatzen den asken piztia, "pailazo" bihurtuko da eta irakaslearen papera irudi bezalakoa izango du.

AURPEGIA ALA GURUTZEA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Konfiantza landu.
- Koordinazioa jorratu.
- Gorputzaren kontrola sustatu.

Azalpena:

Gutxienez, hiru haur izan behar dira jokatzeko. Haurrak besoen bitartez lotuko dira; erdikoa itsua izango da, beste bien kontrako norabidean ipiniz. Beraz, puntetan daudenak aurrera ibiltzen direnean, erdikoa bizkarrez ibiliko da eta bere gelakideek besoak adeitasunez emango dizkiote itsua gidatua izateko. Hainbat talde daudenean itsuen lasterketa bat antolatu daiteke. Baita, noranzkoa ere aldatu daiteke, eta orain itsuak bere kideak gidatuko ditu.

Iturria: Contreras, A. eta Gallego, N. (1997). 150 actividades para niños y niñas.

Materialak:

- Materialik ez.

Moldaketa:

Jolas hau Haur Hezkuntzako bigarren etapara bideratuta dago. Bigarren etapan haien gorputzaren kontrol handiagoa daukate eta atzeraka ibiltzeko gaitasuna garatzen ari dira. Hori dela eta, hiru urtetik aurrerakoentzat egokiagoa da. Lehenengo etapan ere, itsurik gabe egin daiteke.

Jolas honi zailtasuna sartu ahal diogu lasterketen bidez, baina horretara heltzeko pixkanaka-pixkanaka joan beharko dugu; lehenengo poliki, gero erritmoa azkartu eta azkenik korrika egiten ibili. Hori landu ostean, talde ezberdinen arteko lasterketa egin ahal dugu.

TXOKOLATERO MOLINERO

Konpetentziak:

- Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Gaitasun espaziala landu.
- Hitzezko jolasak landu.
- Erritmoa jorratu.

Azalpena:

Irakaslea edo/eta haur bat aulki batean eseriko dira, eta beste haur guztiek aulki horren inguruan borobila sortuko dute, lurrean eserita. Aulkian eserita dagoena (haurra edo irakaslea) beste haur bat bere hanketan ipiniko da begiak itxita. Aulkikoa sorbalda laztantzen hasiko da "Txokolatero Molinero" abestia kantatuz:

Txokolatero molinero
Asto gainean kaballero
Datorrela, datorrela...

Borobilean eserita dagoen haur bat altxatuko da eta hanketan ipinita dagoen haurraren sorbalda ukitu behar du, jarraian berriro eseriz. Orduan, hanketan dagoen haurrak nor ukitu dion asmatu beharko du.

Iturria: Izarra Herri Eskola (2019)

Materialak:

- Materialik ez.

Moldaketa:

Adinaren arabera, irakasleak soilik egingo du aulkian eserita egongo denaren papera; hau, adibidez, bi edo/eta hiru urteko haurrekin egin daiteke. Baita, lagunen izena esateko ere.

Bestalde, Haur Hezkuntzako azken urteetan, bere gelakideen izena esan beharrean haien deskribapena egin dezakete; adibidez, ile horia daukan neska, prakak beltzak dauzkan neska, jertse berdea daukan mutila...

IGURTZIRIK BI ESQUAK

Konpetentziak:

- Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia.
- Zientziarako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Gorputz atalak landu.
- Erritmoa jarraitu.
- Memoria jorratu.

Azalpena:

Irakasleak kanta hau ipini eta hurrek bertan esaten diren mugimenduak jarraitu beharko dituzte. Haur guztiak zutik borobil batean egonda, hain gorputz atalekin kantak adierazten dituen mugimenduak egingo dituzte, honen erritmoa jarraituz.

Igurtzirik bi eskuak,
igurtzirik belarriak,
bero-bero-bero jarri naiz,
jolastera noa orain.
Goiko mendian elurra,
zuritzen ari da lurra.
Txuri-txuriak gailurrak,
gorri-gorriak sudurrak.

Iturria: Imanol Urbieta. (2017).

<https://www.youtube.com/watch?v=gtWNKAhImNc>

Materialak:

- Musika
- Ordenagailua edo musika-katea

Moldaketa:

Haur Hezkuntzako hurrek abestia ezagutzen ez badute, irakaslearen irudia beharrezkoa izango da kantak esaten duena adierazteko eta erritmoa jarraitu ahal izateko. Irakaslea haien aurrean izateak, kontzentrazioa ez galtzera laguntzen die.

Kanta hau neguko urtaroa eta gorputz atal batzuk lantzeko baliagarria izan daiteke. Horrela neguan ematen den meteorologia, erabiltzen den arropak, zer sentitzen den eta abar. hurrekin komentatu eta eztabaidatu ahal da.

Bestalde, Haur Hezkuntzako azken urteetarako oso sinplea izan daiteke. Beraz, haien arteko harremana sustatu dezakegu binaka ipiniz eta mugimenduak haien gorputzean egin beharrean, ondokoaren gorputzean eginez (eskuak igurtzi, belarriak igurtzi, gorputzetik hotza kendu...).

BEGIRA BEGIRA

Konpetentziak:

- Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Talde kohesioa landu.
- Erritmoa jorratu.
- Espazioaz jabetu.

Azalpena:

Irakasleak uztail batzuk lurlean utziko ditu, gelako espaziotik zakabanatutak. Haurrak gelatik ibiltzen, dantzatzen edo/eta mugitzen egongo dira kanta abesten joaten diren bitartean. Orduan, "barrura" hitza esaten dutenean haur bakoitzak uztail bat aukeratu eta horren barruan sartu beharko dira, berriz, "kanpora" hitza entzuterakoan denak kanpora irtengo dira. Ondoren, irakasleak uztail bat jasoko du. Jolasa amaituko da lurlean uztail bat gelditzen denean eta haur guztiak horren barruan sartzen direnean.

Begira begira,
Uztail borobila,
Zertarako, zertarako?
Berriz jolasteko.
Barrura, IUP!
Kanpora, IUP! (x4)

Iturria: Xirula Mirula. (2015).

<https://www.youtube.com/watch?v=AqXqUb9ZdHo>

Materialak:

- Musika
- Ordenagailua edo musika-katea
- Uztailak

Moldaketa:

Haur kopurua dela eta, irakasleak erabakiko du zenbat uztail lurlean ipini behar dituen, baina adinaren arabera uztailaren tamaina kontuan izan behar da. Hau da, haurrak gero eta txikiagoak izan, orduan eta uztaila handiagoak izatea gomendagarria da; adibidez, bi urteko haurrek motrizitate lodia garatzen daude eta oztopoekin mina hartu dezakete.

Bestalde, irakasleak kanta abesten badu, haurrek barrura sartzeko behar duten denbora luzatu dezake. Hori, Haur Hezkuntzaren bi eta hiru urtekoentzat aproposena da.

TRIKITIXA

Konpetentziak:

- Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Motrizitate lodia sustatu
- Gorputz atalak jorratu
- Memoria landu

Azalpena:

Abesti hau jarraituz eta irakaslearen laguntzarekin, hurrek koreografia bat jarraituko dute. Kantaren koreografia jorratzeko zirkulu batean ipiniko dira umeak, irakaslea erdian jarrita gorputz atal ezberdinak mugituko dituzte musikaren eritmoa jarraituz.

Eskuak aurrera, eskuak atzera
Trikitixa trikitixa trikitixa xa xa...

Eskuak aurrera, eskuak atzera
Burua gora! (x1)
Trikitixa trikitixa trikitixa xa xa...

Burua gora, ipurdia kanpora! (x1)

Burua gora, ipurdia kanpora, hankak okertu! (x1)

Burua gora, ipurdia kanpora, hankak okertu, begi bat itxi! (x1)

Burua gora, ipurdia kanpora, hankak okertu, begi bat itxi, mingaina atera! (x1)

Burua gora, ipurdia kanpora, hankak okertu, begi bat itxi, mingaina atera, besoak eskegi! (x1)

Eskuak aurrera, eskuak atzera
Burua gora, ipurdia kanpora, hankak okertu, begi bat itxi, mingaina atera, besoak eskegi, hanka bat gora!
Trikitixa trikitixa trikitixa xa xa...

Iturria: Pirritx, Porrotx eta Marimotots. (2017).
<https://www.youtube.com/watch?v=evgc8Pa0kyY>

Materialak:

- Musika
- Ordenagailua edo musika-katea

Moldaketa:

Jolas honetan koreografia jarraitzeko letra entzun eta jakin behar dute. Horretarako irakaslearen papera garrantzitsua da, hurrek kontzentrazioa galdu ez dezaten. Baita gorputzaren garapena ikusteko eta jorratzeko baliagarria ere izan daiteke jolas hau.

Bestalde, borobilean guztiak ipinita irakaslearen mugimenduak errazago ikusiko dituzte, baina hurrak bi ilaretan ipintzeko aukera ere badago. Bi ilaretan ipintzean, irakaslea aurrera pasako da, haien irudia izateko. Antolamendu hau, Haur Hezkuntzako azken urteetarako egokiagoa da; haur batzuk irakaslearen irudia galdu ahal dutelako bere gelakideren mugimenduren bat dela eta.

LEHOI BATEN BILA NOA

Konpetentziak:

- Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Erritmoa landu.
- Gorputzaren mugimenduak jorratu.
- Imitazio ezberdinak landu.
- Jolas sinbolikora bideratu.
- Harreman kooperatiboak sustatu

Azalpena:

Haur guztiak borobil batean ipinita, bat zuzendaria izango da. Zuzendaria, borobilaren erdialdean kokatuko da. Aurrean dagoenak abestia zatika abestuko du, abestiaren hitzak keinuen bidez antzetzuz. Erdikoa isiltzen denean, beste guztiek esan eta antzetzutakoa errepikatu beharko dute:

LEHOI BATEN BILA NOA: oinez joatearen antzezpena
HANDIENA HARTUKO DUT: besoak asko zabaldu
EZ DUT BELDURRIK: aurpegi ausarta jarri eta hatz batekin ezezko keinua egin
BEGIRA ZENBAT LORE: hatz erakuslearekin lurra seinlatu
AJA, AJA: eskuak gerrian jarri eta gorputza alde batera eta bestera mugitu.

Jolas honetarako kanta hau erabiliko da:

Lehoi baten bila noa
handiena hartuko dut
ez dut beldurrik
begira zenbat lore
aja, aja!
Zuhaitz bat! Zuhaitz luze bat
zuhaitz luze luze bat! Zuhaitz luze luze luze bat!
Igo naiz, begiratu dut, jaitsi naiz.
Lehoi baten bila noa...
Itsasoa, itsaso zabala
Itsaso zabal zabala, itsaso zabal zabal zabala
Murgildu naiz, igeri egin dut, atera naiz.
Lehoi baten bila noa...
Kobazulo bat, kobazulo ilun bat
Kobazulo ilun ilun bat, kobazulo ilun ilun iluna
Sartu naiz, begiratu dut, ikutu dut buru bat!
Bi belarri! Bi begi! Biboteak!
Muturra! Ahoa! Hortzak!
Lehoi bat!!
Buelta eman dut, korrika egin dut, kobazulotik atera naiz, itsasoan sartu naiz, igeri egin dut,
itsasotik atera naiz, zuhaitzera igo naiz, zuhaitzetik jaitsi naiz, etxera joan naiz, ohe azpian sartu
naiz.
Lehoi baten bila nindoan
ez nuen handiena hartu
beldurra izan nuen
begira zenbat lore
aja, aja!

Iturria: Urtxintxa.eus (2020)

Materialak:

- Musika
- Ordenagailua edo musika-katea

Moldaketa:

Haur Hezkuntzako bigarren etaparako bideratuta dago, baina lehenengo urtearentzako (3 urte), erdian ipini beharko dena irakaslea izango da; hurrek irudi bat izateko. Norbait aurrean izatea lagungarria egiten zaie abestia jarraitu ahal izateko. Keinuekin, abestia ulertzea ere laguntzen diegu.

Erlaxatzeko Jolasak

GOITIK BEHERA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Gorputza erlaxatzeko teknika ezagutu.
- Gorputzaren atal ezberdinak landu.

Azalpena:

Haur guztiak zutik jartzen dira gelan edo gimnasioan. Haurrak begiak ixten dituzte, besoak gorantz luzatzen dituzte eta besoak txandaka luzatzen dituzte sabairaino igo nahi balute bezala. Tentsio handieneko unera iristean, gorputza lasaitzen dute, eta erortzen uzten dute eskuak oinekin ukitu arte. Berriro igotzen da, eta hiru aldiz errepikatzen da.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Materialik ez.

Moldaketa:

Ariketa hau gorputz atal ezberdinekin egin ahal da saioan zehar sortutako energia lasaitzeko; adibidez eskuekin egiteko, eskuak gogor itxi ahal bezain gogor eta gero ireki (lasai utzita). Baita hankekin ere egin daiteke, hankak lurraren kontra gogor kolpatu edo lurraren kontra bultzatu (presioa eraginez) eta gero hankak lasaitu (gogortasuna egiteari utzi).

ARNASA HARTZEN

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Arnasketaren erritmoan kontzentratu.
- Arnasketak garrantziaz jabetu.

Azalpena:

Haur guztiak lurrean ahoz gora etzango dira, koltxoneta baten gainean. Haurrak besoak gorputzetik pixka bat aldentutak ipiniko dituzte, eta esku-azpiak gora begira. Begiak itxiko dituzte isilik geratuz. Bakoitza bere arnasketan zentratuko da, arnasa hartu eta bota etenik egin gabe. Irakasleak hurrei gogoratuko die arnasa hartu eta bota behar dutela; gela osoan zehar arnas erritmoa soilik entzun behar da. Irakasleak txandaka erlaxatzeko esaldi batzuk esaten joango da: "Sentitu airea sudurretik nola sartzen eta ateratzen den", "Arnasten jarraitu", "Sentitu airea zuen gorputzean sartzean denean bizitzaz betetzen dela, eta airea kanporatzean gorputza erlaxatzen dela". Prozesu osoa musika lasaiarekin laguntzea, erlaxatzeko giroa osatzeko lagungarria da.

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Koltxonetak edo zerria
- Ordenagailua edo musika-katea
- Musika

Moldaketa:

Ariketa hau Haur Hezkuntzarako moldatzen badugu, lehenik eta behin, aurretik haiekin arnasketa lantzea gomendagarria da arnasketaren kontzientzia hartu dezaten; adibidez, irakaslea eredu bezala izanda, eskuak sabela gainean, hartu arnasa sudurretik eta poliki-poliki ahotik bota. Arnasketaren kontzientzia daukatenean eta haurren adina kontuan izanda, erlaxatzeko ariketa egiten hasi ahal gara hizkuntza moldatuz.

AUTOMASAJEA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Norberak bere gorputz-eskema ezagutu.
- Arreta eta kontzentrazioa gorputzera bideratu.

Azalpena:

Haur guztiak zutik, begiak itxita egongo dira eta automasaje bat emateko prest. Irakaslea agindu batzuk esaten hasiko da automasajea emateko: "Irudimenezko margoarekin gure gorputza margotuko dugu. Margo urdin argia dagoen kubo batean eskuak poliki-poliki sartuko ditugu. (Etenaldia) Margoa ondo sakabanatzeko, bata bestearen kontra igurtziko ditugu. (Etenaldia) Iletik hasiko gara. Gorputz osoan zehar jarraitzen dugu, oso poliki eta kontzentrazio handiarekin: aurpegia, lepoa, sorbaldak, besoak, bularra, bizkarra, sabela, aldakak, ipurmasailak, hankak, oinak. Orain, denok gaude urdin argi kolorez margotutak gaude. Zeru bat gara ". (Musika lasaigarria agertzen da).

Iturria: Mantovani, A. eta Morales, R.I. (2003). Juegos para un taller de teatro: 200 propuestas para expresar y comunicar en la escuela.

Materialak:

- Ordenagailua edo musika-katea
- Musika

Moldaketa:

Haur Hezkuntzako bi eta hiru urtekoentzat, erlaxazioa begiak irekita egitea gomendagarria da. Horrela irakaslea irudi bezala izango dute eta ariketa egitea errazago egingo zaie. Urte tarte honetan haurrek ez dute haien gorputz eskemaren ezagutza guztia, eta irudi bat ikusi gabe zaila egin ahal zaie.

KASK KASK OSKOLA

Konpetentziak:

- Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Erritmoa landu.
- Erlaxazioa jorratu.
- Ikasketa prozesuan murgildu (abestia memorizatu, ikasi...).

Azalpena:

Haurrak binaka eta lurrean ipinita, bata besteari masaje bat emango dio; hau da, lehenengo batek emango du eta gero besteak. Irakasleak eredu moduan izanda, abestia ipini edo kanta jakinda abestu tonu lasai eta baxu batean. Honekin, haurrak masajea egiten hasiko dira. Kanta bi alditan abestuko da, bi hurrek momentuaz disfrutatzeke.

Kask-kask oskola, kraskatu arrautza oskola;
behera badoa haren goringoa.
Inurritxoak gora, gerritik lepora;
behera behera inurriak, beti bihurriak.
Aupa elefanteak, zuek bai mastodonteak.
Mesedez jaitsi, ez nazazue hautsi.
Txitoak goraka, txio-txio-txioka;
txitoak beheraka, aita kukurruka.
Igo sagu saguzarrak, igo sagu saguzarrak,
odola zurrupatu, odola zurrupatu;
jaitsi sagu saguzarrak, jaitsi sagu saguzarrak,
odola zurrupatu, odola zurrupatu.
Laranjen igoera, zukua atera, zukua atera.
Laranjen jaitsiera, zukua atera, zukua atera.
Hotzak akabatzen nago. Fu, fu!
Hotzak akabatzen nago. Fu, fu!
Hotzikara eta agur.

Iturria: Pirritx, Porrotx eta Marimotots. (2015).
<https://www.youtube.com/watch?v=sGWM0f7OuQs>

Materialak:

Abestia ipiniz,

- Abestia (CD,DVD edo internet).
- Ordenagailua edo musika-ekipoa.

Abestia kantatuz,

- Ahotsa.

Moldaketa:

Lehenengo aldietan, Haur Hezkuntzako gela batean pixkanaka mugimenduekin hastea egokiena da. Horrela, musika gehitzen diogunean mugimenduak barneratuta izango dituzte eta masajea hobeto jarraitu eta gehiago disfrutatu ahal izango dute. Baita, Haur Hezkuntzako etapan, irakaslearen ereduak garrantzi handia dauka hurrek irudi bat izateko. Laburbilduz, Haur Hezkuntzarako bai abestiarekin bai mugimenduekin (dantzarekin) hastea eta gero biak batzea egokiena da, haurren ikaskuntza prozesua etapa ezberdinetatik pasatzeko eta lasaiago sentiarazteko.

Jarduera baten ostean, erlaxatzeko jolas bat egitea gomendagarria da hurrek jolasean sortutako tentsioak lasaitzeko, saioari amaiera emanez. Noiz behinka eginez gero, hurrek jakingo dute saio bukatzeaz dagoela "bukatu dela" esaldiak aipatu gabe.

YOGA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Erlaxatzeko teknikak ikasi.
- Gorputz eskema ezagutu.
- Gorputz atalen kontrola landu.

Azalpena:

Haur bakoitzak bere espazioa hartuko du, bezain beste. Eduyogaren kartak erabiliz, irakasleak haurrei irudi batzuk erakutsiko dizkie eta guztien artean kartan agertzen den jarrera egingo dute.

Iturria: Eduyoga eta Izarra Herri Eskola



<https://www.laciudadewaigo.com/wp-content/uploads/2018/01/EDUYOGA-Juego-de-Yoga.pdf>

Materialak:

- Eduyogaren kartak
- Musika lasaia (hautazkoa)

Moldaketa:

Haurrak, Haur Hezkuntzako etapan, bere gorputza ezagutzen hasten dira eta honekin frogatzen dute. Hori dela eta, haientzako jolasak erakargarriagoak egitea garrantzitsua da. Jolas honetan, irakasleak irudi edo jarrera bakoitzeko istorio edo ipuin txiki bat asmatu dezake. Horrela, irudi bakoitzari zentzu bat emango diote eta jolasa hobeto ulertuko dute.



ERLAXAZIOAREN ORDUA

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Erlaxazioa sustatu.
- Arnasketa landu.
- Gorputzaren kontrola jorratu.

Azalpena:

Haurrak belauniko ipiniko dira, besoak aldeetara erorita utzita. Bizkarra zuzen izanda, poliki-poliki aurrerantz makurtuko dira, aurpegia lurra ukitu arte. Gorputzaren jarrera hori mantenduko dute denboratxo batean zehar, begiak itxiz eta bizkarrezurra luzatuz, erlaxatzeko behar den beste denboran egonda.

Iturria: Contreras, A. eta Gallego, N. (1997). 150 actividades para niños y niñas.

Materialak:

Jatorrizkoan,

- Koltxoneta

Moldaketan,

- Musika
- Ordenagailua edo musika-katea

Moldaketa:

Jolas hau saio mugitu baten ostean egin dezakegu, haur bakoitzak bere koltxoneta hartu eta erlaxatu arte behar duten denbora hartu.

Ekintza honetan behar den giro lasaia lortzeko, haurren isiltasuna behar da. Batzuetan zaila egiten zaie isilik egotea saio mugitu baten ondoren, oso urduri daudelako. Hori, musika lasai baten laguntzarekin hobeto lortu ahal dezakegu.

Haurren aurrean irakaslea bere koltxonetan ipini ahal da, haurren irudia eta jarraibidea izan dezan. Nahiz eta jolas edo jarduera bat behin eta berriro egin, hurrek irudi bat behar dute egin beharrekoa gogoratzeko; hori irakaslearen rola izango da. Gero, hurrei laguntza eskaintzeko eta haien beharretara egokitzeko egongo da; adibidez, bizkarrezurra luzatzen laguntzeko.

IRABIATU HEGOAK

Konpetentziak:

- Gizarterako eta Herritertasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Arnasketa landu.
- Gorputzaren kontrola eta oreka jorratu..
- Gorputzaren elastikotasuna sustatu.

Azalpena:

Haurrak txoriak izango dira eta txoriek hegoak zabaltzen dituzte, zutik, hankak irekita. Birrikak pustu behar dituzte eta, gorputza pixkanaka aurrerantz eramaten duten bitartean, poliki-poliki airea askatzen joango dira gorputzak angelu zuzena osatu arte. Arnasketa (airea) amaitzen denean, astiro-astiro hegoak irabiatuko dituzte gorputza zuzendu arte, arnasa sakon hartuko dute.

Haurrek mugimendua hainbat aldiz errepikatuko dute arnasketa normala berreskuratu aurretik; hau da, haur bakoitzak behar bezain aldiz mugituko ditu besoak arnasketa berreskuratu ahal izateko.

Iturria: Contreras, A. eta Gallego, N. (1997). 150 actividades para niños y niñas.

Materialak:

- Materialik ez.

Moldaketa:

Jolas honen bidez, haur bakoitzari bere gorputza kontrolatzeko teknika bat irakatsiko zaie. Baita, arnasa guregan daukan eragina ikusiko dute ere eta honekin erlaxatu ahal garena ikasiko dute.

Jolasa egiten dugun lehenengo aldietan, eta gehien bat txikiak badira, lehendabizi arnasketa lantzen hasiko gara. Haurren adinaren eta garapenaren arabera, besoen mugimendua sartu ahal da; beti pixkanaka eta haurren beharrak kontuan izanda. Aurrerago, gorputzaren inklinazioaren aldaketak sartuko dira.

Haur txikiekin egiten bada arnasa eta besoekin nahiko izango dute. Gorputzaren inklinazioarekin oreka galdu dezakete eta oraindik garatzen daude. Bestalde, besoen mugimenduak sinpleak izan behar dira; adibidez, arnasa hartzen duten bakoitzean besoak igoko dituzte eta besoak jaisten dituztenean arnasa bota.

Irakaslea haurren aurrean egongo da, bere irudia izateko. Bestalde, behatzaile papera hartuko du, haurren zailtasunak ikusteko eta jolasa moldatzeko; adibidez, mugimendu gehiago sartuz, zailtasuna jaitsiz...

TXIMELETA

Konpetentziak:

- Zientziarako konpetentzia.
- Gizarterako eta Herritartasunerako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburuak:

- Erlaxazioa landu.
- Arreta eta kontzentrazioa mantendu.
- Gorputzaren muskuluak (hankak eta sabelaldea) indartu.
- Gorputzaren elastikotasuna sustatu.

Azalpena:

Zure tximeleta txikia lurrean esertzen hasten da, bizkarra ondo zuzen eta hankak bere aurrean luzatuta. Gero tolestu egiten ditu, eta oinak orpoz orpo jartzen ditu, eskuekin eutsita. Ahalik eta gehien hurbildu orpoak izterretara eta jaisi belaunak tximeletaren hegalean irabiatzea gogoratuko duen mugimendu batean.

Iturria: Contreras, A. eta Gallego, N. (1997). 150 actividades para niños y niñas.

Materialak:

Jatorrizkoan,

- Materialik ez.

Moldaketan,

- Koltxonetak.

Moldaketa:

Jolas hau saioa amaitzeko edo gelan sortutako urduritasuna jaisteko erabilgarria da. Hurrei asko gustatzen zaie animaliak eta haien jarrerak imitatzea erakargarria izango da haientzat.

Jolas hau egiteko, bakoitzak bere lekua behar du. Horretarako, bakoitzak berarentzat koltxoneta bat izatea egokiena da. Koltxonetaren laguntzarekin, haurren espazioa mugatuko dugu mugimenduak egin ahal izateko eta ondokoei ez oztopatzeke.

Bestalde, haurrentzako lehenengo aldietan egingo denaren azalpen txiki bat ematea gomendagarria da. Baita, istorio bat kontatu ahal diegu ere haurrak jolasean sartu ahal izateko. Adibidez,

Tximeleta bat jaiotzeko lehenengo beldarra da. Beldarrak lurretik ibiltzen dira eta luze-luzeak dira (haurrak etzanda ipiniko dira, besoak burutik gora eta hankak guztiz luzatuta izanda). Gero, beldarrak bere gorputzaren inguruan etxetxo bat sortzen du (buruz behera, gorputza borobil bat egingo dute). Etxe horri kupulua deitzen zaio, eta pixkanaka apurtzen hasten dira (koltxonetan poliki-poliki eseriko dira hankak tolestuz eta oinak orpoz orpo ipiniz). Etxearen atea ireki egiten duenean, tximeleta bihurtu egin da eta hegan eginez aterako da (hankak gora eta behera mugituz tximeletaren hegoak bezalako mugimenduak adieraziko dituzte).

Irakasleak behatzaile papera hartu du. Baina aldi berean, haurren irudia izango da hauek mugimenduak egin ahal izateko eta jolasa jarraitzeko laguntza eskaintzeko.

9.3. Ebaluazio taulen ereduak.

HAURRENTZAKO AUTOEBALUAZIO TAULA				
				
Nola pasatu dut?				
Jolasaren arauak errespetatu ditut?				
Gelakideak lagundu ditut?				
Bi hankekin salto egin dut?				
Hanka batekin salto egin dut?				
Korrika egin dut?				
Abestu dut?				
Keinuak egin ditut?				
Begiak itxi ditut?				

HAURREN EBALUAZIO TAULA					
	Ezer	Gutxi	Nahiko	Ondo	Oso ondo
Mugimenduak koordinatzeko gai da.					
Desplazamendu ezberdinak egiteko gai da.					
Oreka mantentzeko gai da (hanka batekin, bi hankekin...).					
Lekualdaketak egiteko modu ezberdinak erabiltzeko gai da (katamarka, ibiltzen, korrika...).					
Lurretik altxatu gabe mugitzeko gai da (irristatzen...).					
Jolas bakoitzean lekualdaketa egiteko modu egokiena erabiltzeko gai da.					
Jolas bakoitza amaitzerakoan egin duena hitzez adierazteko gai da.					
Bere kezkak, zalantzak, emozioak, beharrak... adierazteko gai da.					
Jolas bakoitzean erabiltzen diren materialak (baloia, puxika, oihala, aulkia...) identifikatzeko gai da.					
Materialak sormenez erabiltzeko gai da (erabilera ezberdinak emanaz).					
Materiala errespetuz erabiltzeko gai da.					
Saioaren edo jolasaren amaieran materiala jasotzeko gai da.					
Gelakideak laguntzeko gai da (laguntza eskatzen diotenean).					
Jolas batean arduraduna denean, jarraibideak betetzeko gai da.					
Gatazka egoerak autoerregulatzeko gai da.					
<u>Oharrak:</u>					

IRAKASLEAREN AUTOEBALUAZIOA

	Ezer	Gutxi	Nahiko	Ondo
Irakaslea ikasleen irudi gisa bezala jokatzeko gai da.				
Irakaslea jardueren helburua burutzeraz laguntzeko gai da.				
Irakaskuntzari esker, haurrak ikaskuntza esanguratsuak egiteko gai dira.				
Gelako gatazketan, irakaslea bitartekari gisa aritzeko gai da.				
Irakaslea feedback-a emateko gai da.				
Ikasleengan gogoeta egoki bat sustatzeko gai da.				
Irakaslea jarduera motibagarriak proposatzeko gai da.				
<u>Oharrak:</u>				

SAIOAREN EBALUAZIOA				
	Ezer	Gutxi	Nahiko	Ondo
Helburuen, edukien eta ebaluazio-irizpideen zailtasuna ikasleen mailari egokitu zaio.				
Helburuen, edukien eta ebaluazio-irizpideen denboralizazioa egokia izan da.				
Jardueren zailtasun maila haurrentzako egokia izan da.				
Jolasetan hurrei emandako materialak helburuak lortzera lagundu dira.				
Jolasak ikasleak ebaluatzeko baliogarriak izan dira.				
Egindako taldekatzeak egokiak izan dira jarduerak aurrera eramateko.				
<u>Oharrak:</u>				

